**11/2003 FORU ARAUA, MARTXOAREN 31KOA, ONDARE ESKUALDAKETA ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA**

**(ALHAO, 43. zk., 03-4-11koa, gehigarria)**

## ZIOEN ADIERAZPENA

Foru Arau honek Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzea du helburu, azkeneko aldiz 1981eko maiatzaren 31n arautu baitzen.

Ordutik aurrera 1981eko Foru Araua berrikustea eta berritzea aholkatu duten aldaketa handiak izan dira.

Foru Araua Hasierako titulu batean eta lau titulutan egituratzen da. Hasierako tituluan zerga horrek kostubidezko ondare aldaketak, sozietate eragiketak eta egintza juridiko dokumentatuak zergapetzen dituela adierazten da. Era berean, eta arau orokorrekin batera, zergaren aplikazio eremua arautzen da.

Lehenengo Tituluan ondare eskualdaketak arautzen dira, zerga egitateari, zergadunari, zerga eta likidazio oinarriei eta zerga kuotei dagozkien xedapenak jasoz.

Bigarren Titulua sozietate eragiketei buruzkoa da eta bertan ondare eskualdaketei buruzko tituluan aipatutako funtsezko elementuak arautzen dira.

Hirugarren titulua egintza juridiko dokumentatuei buruzkoa da, eta bertan zehazten diren notaritzako dokumentuak, merkataritzakoak eta administratiboak zerga pean ezartzen ditu.

Azkenik, Laugarren Tituluak zerga onurak, balioen egiaztatzea, sortzapena eta preskripzioak, izapide betebeharrak, zergaren kudeaketa eta likidazioa eta itzultzeak eta zigor erregimena arautzen ditu.

## HASIERAKO TITULUA

## I. KAPITULUA
## IZAERA ETA EDUKIA

### 1. artikulua.- Izaera eta modalitateak.

**1.** Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga zeharkako zerga da, eta, Foru Arau honetan ezarritakoaren arabera, zergapetuko ditu:

   1. Kostubidezko ondare aldaketak.

2. Sozietate eragiketak.

3. Egintza juridiko dokumentatuak.

**2.** Egintza bat ezin izango da, inoiz ere ez, kostubidezko ondare aldaketen bidez eta sozietate eragiketen bidez likidatu.

**3.** "Kostubidezko ondare aldaketen" edo "sozietate eragiketen" bidez egintza edo kontratu bat zergapetzea "egintza juridiko dokumentatuen" bidez euskarri dokumentalaren zergapetzearekin bateragarri izango da zerga arautzen duten arauetatik espresuki horrela adierazten denean bakarrik.

**2. artikulua.- Egintzaren edo kontratuaren kalifikazioa.**

**1.** Arau Foral honek arautzen duen zerga eskatuko da egintzaren edo kontratuaren likidazioaren benetako izaera juridikoa kontuan izanda, aldeek eman dioten izena edozein izanda ere, balioari eta eraginkortasunari eragin ahal dioten formako akatsak eta berez dituen akatsak alde batera utzita, ordenamendu juridikoa hautsi gabe, betiere.

**2.** Baldintzaren bat dagoen egintza edo kontratuetan, Kode Zibilean jasotako aginduen arabera egingo da kalifikazioa. Bertan behera utziko balitz, hori bete arte zerga ez da likidatuko, eta likidazioaren atzerapena dagokion Erregistro publikoko ondasunen inskripzioan jakinaraziko da. Baldintza xedapenezkoa bada, zerga itzultzeko eskaera egingo da, jakina, gordea izateko; baldintza betetzen denean, Foru Arau honetako 83. artikuluko arauek diotenari jarraikiz itzuliko da zergaren zenbatekoa.

**3.** Kontratuan jabetzaren erreserba, hitzartutako prezioa osotasunean ordaindu arte, ezartzen denean ulertuko da, zergaren likidazioari eta ordainketari dagokienez, eskualdatzea adostutako baldintzetan prezioa ez ordaintzeagatik egindako xedapenezko baldintzarekin egingo dela.

**4.** Ez da baldintza etenarazletzat hartuko, interesatuek hala agertu arren, egintzaren edo kontratuaren eraginkortasuna baimen edo onarpen administratibo baten menpe egotea, baimen edo onarpena nahitaezkoak izan arren, itzultzeko eskubidea ere kontuan hartuz, hala dagokionean.

**3. artikulua.- Ondasunen kalifikazioa.**

**1.** Izaera, helburu, erabilera edo aplikazio ezberdina dutela-eta zergari loturik dauden ondasunen kalifikazio juridikoa zuzenbide zibilak horri buruz ezartzen duenaren arabera edo, halakorik izan ezean, zuzenbide administratiboak ezartzen duenaren arabera egingo da.

**2.** Ondasun higiezintzat hartuko dira, zerga honen ondorioetarako, modu iraunkorrean ezarritako edozein instalazio, eraikuntza mota dela-eta garraiagarriak izan arren eta instalazioaren jabea instalazioa dagoen solairuaren jabe ez izan arren.

**4. artikulua.- Konbentzioen konkurrentzia.**

**1.** Konbentzio bakar bati eskubide bakar baten ordainketa eska dakioke bakarrik, baina, dokumentu edo kontratu bat zergari bakoitza bere aldetik lotutako zenbait konbentzio dituenean, horietako bakoitzari eskatuko zaio aipatu eskubidea, espresuki besterik zehazten den kasuetan izan ezik.

**2.** Aurreko atalean xedatutakoak kontratuaren edo konbentzioaren euskarri dokumentalari dagokion kargan ez duela eragingo ulertu behar da, Foru Arau honetako 1. artikuluko 3. atalean ezarritakoaren bat etorriz.

**5. artikulua.- Eskualdatutako ondasunen atxikipena.**

**1.** Eskualdatutako ondasun eta eskubideak eskualdaketa horiek zergapetzen dituzten zergak ordaintzeko ardurari atxikita egongo dira, horien jabe edozein izanda ere; ez da horrela izango jabea erregistroko fede publikoak babestutakoa denean edo ondasunak fede onez eta titulu justuaz merkataritza establezimenduan edo industrialean ondasun higigarri eta inskribaezinen kasuan eskuratu direla egiaztatzen bada. Atxikipena notarioek utziko dute idatziz jasota, baimentzen dituzten dokumentuetan dagokion oharra ezarriz. Hirugarrena ez da erregistroko fede publikoak babestutzat hartuko, baldin erregistroan atxikipena espresuki jasota badago.

**2.** Foru Arauaren bidez salbuespen edo murrizketa bat ematen den bakoitzean —salbuespen edo murrizketak behin betiko eraginkortasuna izan dezan zergadunak arauak eskatzen duen edozein baldintza bete behar duenean—, bulego likidatzaileak emandako salbuespena edo murrizketa izan ezean igorri beharreko likidazioaren zenbatekoa jasoko du zerga onura adierazten duen oharrean.

Jabetzaren edo merkataritzako erregistratzaileek orri bazterreko oharraren bidez jasoko dute eskualdatutako ondasunen atxikipena aipatutako zenbatekoa ordaintzerakoan, titularra edozein izanda ere, eskubideak eman zituen arauak ezarritako epean eskubideen behin betiko eraginkortasuna izateko eskatutako betebeharrak betetzen ez diren kasuetan.

**3.** (12) Era berean jasoko dira, ertzeko oharraren bidez, jabetza zatikatu den kasuetan, gozamenaren azkentzearen ondorioz sortutako likidazioaren ordainketari lotuta daudela ondasunak. Ondorio horretarako, Bulego Likidatzaileak bidezkoa dena kontsignatuko du, behin-behingoz, eta zuzenketari kalterik egin gabe, gozamena eratzen den unean aplikatu beharreko tasen eta oinarrien arabera.

**4.** (12) Aurreko 2. eta 3. idatz zatietan aipatutako Likidazio Bulegoan oharrik ez badago, jabetzaren erregistratzaileek edo merkataritzakoek ofizioz egingo dute behar den ertzeko oharra, hura jaso duen Likidazio Bulegoak zigilatutako autolikidazioa ikusirik. Ohar horretan zerga ordaindu dela agertaraziko da, edota zergapekoa ez dela edo salbuetsita dagoela alegatuko, zergaren araudian jasotakoarekin bat etorriz.

## II. KAPITULUA
## ZERGAREN APLIKAZIO EREMUA

**6. artikulua.- Zergaren ordainarazpena.**

**Bat.** Ondare Eskualdaketen eta Egintza Dokumentatuen gaineko Zergaren ordainarazpena Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio, honako kasuetan:

A) Ondare eskualdaketak:

1. Araban dauden kostubidezko eskualdaketetan eta ondasun higiezinen alokairuetan eta eskubide errealen kostubidezko lagapen eta eratzeetan (bermeak barne), betiere, haien gainekoak badira.

   (35) Baloreen Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 314. artikuluan ageri diren kasuetan, eskualdatzen diren baloreei dagokien entitatearen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak Arabako lurraldean daudenean (testu bategin hori 2015eko urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

2. Ondasun higiezin, azienda eta kredituen kostubidezko eskualdatzeetan, eta haien gaineko eskubideen kostubidezko eratze eta lagatzeetan, betiere, eskuratzaileak, pertsona fisiko izanda, ohiko bizitokia Araban badu, eta, pertsona juridiko izanda, zerga egoitza probintzia horretan badu.

   Aurrekoa gorabehera, honako salbuespenak ezarri dira:

   a) Akzioak eta harpidetza, obligazio edo antzeko tituluen eskubideak eta gainerako balioak edo sozietateetako partaidetzak eskualdatzean, betiere eragiketa Araban gauzatzen bada.

   b) Hipoteka higigarria edo joan-etorririk gabeko bahia edo ontzi, itsasontzi edo aireontziekikoa eratzean, ekintza horien izena Araban eman behar denean.

3. Mailegu bakunak, fidantzak, higiezinak ez diren alokairuetan eta pentsioetan, baldin mailegatzaileak, mailegatuak, maizterrak edo pentsionistak, pertsona fisikoa izanda, ohiko bizitokia Araban badu, edota pertsona juridiko izanda, Araban badu zerga egoitza.

Hala ere, berme errealarekiko maileguak badira, ondasun higiezin hipotekatuak Araban daudenean edota hipoteka higigarri nahiz desplazamendu gabeko bahi egokiak Araban sar daitezkeenean.

Mailegu bat Araban eta beste lurralde batean (foru lurraldea nahiz komuna) dauden ondasun higiezinek nahiz Araban eta beste lurralde batean sar daitekeen hipoteka higigarriak edo joan-etorririk gabeko bahiak bermatzen badute, administrazio bakoitzean ordaindu beharko dira zergak, batzuei eta besteei adierazten zaien erantzukizunaren proportzioan; eta eskrituran halakorik zehazten ez bada, ondasunetatik egiaztatu diren balioen proportzioan.

4. Ondasunen gaineko administrazio emakidetan, horiek Araban daudenean, eta obra gauzatzeetan nahiz zerbitzu ustiatzeetan, Araban gauzatu edo eskaintzen badira. Arau horiek aplikatuko dira, zergak ordaintzeko administrazio emakidekin erkatzen diren administrazio negozioak edo ekintzak badira.

   Arabatik ateratzen diren ondasunen ustiaketen emakidak badira, Araban okupatzen duten azaleraren proportzioko zerga eskatuko zaie.

   Arabatik ateratzen diren obren gauzatzeen emakidak badira, Araban egingo diren obrentzat jotzen den zenbatekoaren proportzioko zerga eskatuko zaie.

   Arabatik ateratzen diren zerbitzuen ustiaketen emakidak badira, hango biztanleriak eta haren azalerak, zerikusia duten gainerako lurraldeen aldean, duten batez besteko aritmetikoaren araberako zerga eskatuko zaie.

   Arabatik ateratzen diren emakida mistoak badira, aurreko hiru paragrafoetan jasotako irizpideen emakidari dagokion zatia aplikatzearen zerga eskatuko zaie.

   Araba gainditzen duten administrazio emakiden kasuan, Zergaren ikuskatzea Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio, erakunde emakidadunaren zerga egoitza Araban badago.

B) Sozietate eragiketak:

Ondoko baldintzetako bat gertatzen denean:

1. Erakundeak Araban izatea zerga egoitza.

2. Erakundeak Araban izatea zerga egoitza, betiere, benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasuneko estatu bateko beste zerga administrazioren baten eremuan ez badago; edota, egonez gero, estatu horrek sozietate eragiketari ez badio antzeko zergarik ezartzen.

3. Erakundeak Araban egitea trafiko eragiketak, betiere, benetako zuzendaritzaren egoitza eta haren zerga egoitza Europar Batasuneko estatu bateko beste zerga administrazioren baten eremuan ez badago; edota, egonez gero, estatu horiek sozietate eragiketari ez badiote antzeko zergarik ezartzen.

C) Egintza Juridiko Dokumentatuak:

1. Eskritura, akta eta notario testigantzetan, Araban ematen badira.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, egintza juridiko dokumentatuei dagokien kargaren apurkako kuotari lotutako subjektuen kasuan, ondasun edo egintzak sartu beharreko erregistroa Araban badago.

2. Kanbio letretan eta haien ordezko dokumentuetan edo igorpen funtzioak dituztenetan; bai eta ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko tituluak, baldin Araban jaulki edo igorri badira. Igorpena atzerrian egin bada, lehenengo edukitzailearen ohiko bizitokia edo zerga egoitza Araban badago.

3. Behin-behineko idazpenetan, Arabako erregistro publikoetan egiten badira.

**Bi.** Artikulu honetan zehaztutakoaren ondorioetarako:

A) Pertsona fisikoek ohiko bizitokia Araban dutela jotzeko, ondoko arau hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren:

   1. Euskal Autonomia Erkidegoan zergaldiaren sortzapenaren aurreko egunean amaitzen den aurreko urtearen (datatik datara zenbatuta) egun gehienetan egonez gero, eta aldi horretan Araban dagoen egun kopurua beste bi probintzietan dagoena baino luzeagoa bada.

      Denbora tarte hori zehazteko, zenbatu egingo dira aldi baterako absentziak.

      Kontrakoa frogatu ezean, pertsona fisiko bat Araban bizi dela joko da haren ohiko etxebizitza probintzia horretan dagoenean.

   2. (3) Bere interesak gehienbat Araban badituzte. Zergadun batek bere interes gehienak Araban dituela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian lorturik, horren zatirik handiena Arabako lurraldean lortzen duenean, higigarrien kapitalaren errentak eta ondare-irabaziak eta egotzitako zerga-oinarriak kenduta.

   3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, azken bizitokia Araban badu.

      Bigarren araua aplikatuko da, lehenengo arauan xedatutakoaren arabera, ohiko bizitokia lurralderen batean (foru lurraldea nahiz lurralde komuna) duela zehazteko modurik izan ez bada. Hirugarren araua egoera bera gertatzen denean aplikatuko da, lehenengo eta bigarren arauetan xedatutakoa aplikatu ondoren.

B) Espainian bizi diren pertsona fisikoak, bertan urte naturaleko 183 egun baino gehiago ez daudenean, Euskadin bizi direla joko da, bere enpresa edo lanbide jardueren edo ekonomia interesen erdigunea edo oinarria han dagoenean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, etxebizitza Euskadin daukaten pertsonak Araban bizi direla joko da, haien enpresa edo lanbide jardueren edo ekonomia interesen erdigunea edo oinarria han dagoenean.

C) Pertsona fisiko batek, legalki bananduta ez dagoen bere ezkontideak eta pertsona fisikoaren mende dauden seme-alaba adingabeek ohiko egoitza Araban daukatelako, egoitza Espainian duela jotzen denean, ohiko egoitza Araban daukala joko da. Uste horri kontrako froga aurkeztu ahal zaio.

D) Benetan zerga gutxiago ordaindu ahal izateko balio duten egoitza aldaketak ez dira eraginkorrak izango.

E) Pertsona juridikoek zerga egoitza Araban dutela jotzen da, sozietate egoitza probintzia horretan badute, eta administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza han zentralizatuta izanez gero. Bestela, gestio edo zuzendaritza hori gauzatzen den lekura jo beharra dago.

Zerga egoitza zein den ezin denean erabaki, aurreko irizpideekin bat, honako kasuan joko da pertsona juridikoek Araban dutela zerga egoitza: ibilgetuaren baliorik handiena Euskadin izanda Araban beste bi probintzietan baino ibilgetu zati handiagoa dutenean.

F) Establezimendu iraunkorrek zerga egoitza Araban dutela joko da, administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Araban gauzatzen badituzte. Irizpideari jarraiki, zerga egoitzaren lekua ezarri ezin denean, ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekuari behatuko zaio, aurreko E) letran zehaztutako irizpidea aplikatuta.

G) Sozietate zibilak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga egoitza Araban dutela joko da, kudeaketa eta zuzendaritza Araban gauzatzen badituzte. Kudeaketako eta zuzendaritzako irizpidea aplikatzeagatik, nortasun juridikorik gabeko erakunde eta sozietate zibilen zerga egoitza zehaztu ezin bada, zerga egoitza Araban dutela joko da, baldin ibilgetuaren balio handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanda, Araban duten ibilgetuaren balioa beste probintzietako bakoitzean dutena baino handiagoa bada.

**Hiru.** Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, Espainiako Estatuak sinatu eta berretsi dituen nazioarteko hitzarmenetan, edota Espainiako Estatua batzen zaienetan, ezarritakoari jarraituko zaio.

## I. TITULUA
## ONDARE ESKUALDAKETAK

### I. KAPITULUA
### ZERGAPEKO EGITATEA

## 1. ATALA. ARAU OROKORRAK

**<u>7. artikulua</u>.- Lotutako eskualdaketak.**

**1.** Lotutako ondare aldaketak dira:

A) Pertsona fisiko edo juridikoen ondasuna osatzen duten edozein motako ondasun eta eskubideen bizien arteko ekintzen bidezko kostubidezko eskualdatzeak.

B) Eskubide errealak, maileguak, fidantzak, alokairuak, pentsioak eta administrazio emakidak eratzea, trenbideko azpiegiturak edo portuetako edo aireportuetako higiezinak edo instalazioak erabiltzeko eskubidea besteren esku uztea helburu duten administrazio emakidak izan ezik.

**2.** Gero eduki hori handitzen badu eta ondorioz titularraren ondarea handitzen bada, eskubide-eratzetzat likidatuko da. Handitze hori izango da, gainera, zergak ordaintzeko eskatuko zaion oinarria.

**3.** (37) Administrazio emakidek eskubideen eratzetzat tributatuko dute, foru arau honetako 43. artikuluko Bat idatz zatiko d) letran xedatutako zerga tasa aplikatuta, emakiden izaera, iraupena eta zergapetzen dituzten ondasunak edozein izanda ere.

Ondasunak partikularrengana eskualdatzea sortzen duten administrazio egintzak eta negozioak modalitatea eta izena edozein izanda ere emakida administratiboekin parekatuko dira, zergaren ondorioetarako. Eskualdatzea eman beharko da zerbitzu publikoen kudeaketako ahalmenak ematearen ondorioz edo jabetza edo erabilera publikoko ondasunen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia ematearen ondorioz.

Zergen ondorioetarako emakida administratiboekin parekatzen diren egintza edo negozio administratiboen emakidadunaren edo onuradunaren eskubideen eskualdatzea eskualdatzen diren eskubideen izaera higigarri edo higiezinari dagokion zerga tasaren arabera ordainduko da.

**<u>8. artikulua</u>.- Eskualdatzeekin parekatutako ekintzak.**

Ondare eskualdaketatzat, zergaren likidaziorako eta ordainketarako, honakoak joko dira:

A) Zorrak ordaintzeko esleitzeak eta zorren arduraren ordainketetarako berariazko esleitzeak. Zergak ordaintzeko esleipendunek esleipen horietatik ordaindutako zerga itzultzea eska dezakete, bi urteko epean, eman zizkioten ondasun edo eskubide horiek eta horretarako hirugarren bati eman zizkiotela baieztatzen dituzten ondasun edo eskubideak, hartzekodunari kredituaren kaudimenerako eman dizkiotela egiaztatuz gero.

B) (36) Aitortutako adjudikazio gaindikinak, salbu Foru Arau honek bere 24. artikuluaren 3 eta 4. idatz zatietan ezarritako kasuak betetzeko sortzen direnak, eta bereziki ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dagoen baserriaren eta haren jabegoaren doako eskualdaketatik sortzen direnak.

C) Jabetza espedienteak, ezaguntasun aktak, Hipoteka legeko VI. Tituluak aipatzen dituen dokumentu publikoen akta osagarriak eta lege horretako 206. artikulua betez emandako ziurtagiriak, zerga ordaindu dela edo eskualdatzea dela-eta salbuespena edo atxikitze eza dagoela egiaztatuz ezean; kasu horietan, horiekin eta horien objektu diren ondasunekin ordeztu beharko dute titulua, preskripzioari dagokionez izan ezik —preskribitzeko epea espedientearen, aktaren edo ziurtagiriaren datatik aurrera hasiko da—.

D) Pertsona jakin batentzako jabetzaren onartzeak, aurreko atalean egindako salbuespen bera betez, Hipoteka legearen 200. artikuluan eta bere erregelamenduko 298. artikuluan araututako edukien soberakinak barne.

Dena den, ez dira zergaren menpe egongo Hipoteka Legea betetzeko erregelamenduaren 298. artikuluko 3. atalak aipatzen duen elementuaren azaleraren zuzenketa hutsarekin bat datozen edukien soberakinak.

(48) Era berean, ez dira zergapetuko Arabako Foru Aldundiak emandako hiri izaerako katastro erreferentzia bat duten ondasun higiezinetan agertzen diren gehiegizko edukierak.

E) (19) Ondasun higiezinen adjudikazioak, sozietate bat desegitean edo haren kapitala txikitzean higiezina ekarri zuenak ez beste bazkide batek egiten dituenak, baldin eta higiezina ekarri zenetik sozietatea desegin edo kapitala txikitu arte lau urte baino gutxiago pasatu badira.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, foru arau honetako 47. artikuluan aipatzen diren erakundeak sozietateak izango dira.

Halaber, idatz zati honetako aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatu behar denean, sozietate eragiketan gaineko karga (foru arau honetako 50. eta 51. artikuluak) dela eta kapital txikipenaren edo sozietatearen desegitearen zerga oinarria kalkulatzeko ez da kontuan hartuko ondasun higiezinaren balioa.

Halako kasuetan, ondasun higiezinaren balioa izango da zerga oinarria Zergaren kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean, foru arau honetako 28. artikuluan xedatu den bezala, eta eskualdaketa foru arau honetako 43. artikuluko lehenengo idatz zatiko a) letran ezarritakoaren arabera kargatuko da.

**9. artikulua.- Hipotekekin parekatutako ekintzak.**

**1.** Hipoteka legeko 11. artikuluak adierazten dituen salerosketen baldintza erabakigarri esplizituak atzeratutako ordainketa saldutako finkarekin bermatuko duten hipotekekin parekatuko dira.

**2.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezinen enpresa eskualdatzeetan atzeratutako prezioa ordaintzea bermatzen duten baldintza erabakigarri esplizituak ez dira zergapetuko ez zerga honetan ez Ondare Eskualdaketen Zergan ere. Erregimen hori bera aplikatuko zaie ondasun higiezinen enpresa eskualdatzeetan atzeratutako prezioa bermatzen duten eta eskualdatutako ondasun horien gainean sortutako hipotekei.

**3.** Balio Erantsiaren gaineko Zergan salbuetsita gelditzearen ondorioz ondasun higiezinen enpresa eskualdatzeek "kostubidezko ondare aldaketen" modalitatearen arabera ordaindu behar badute, atzeratutako prezioaren berme moduan egindako baldintza erabakigarri esplizituaren eratzea ere modalitate horren arabera egingo da, eratzen duen pertsona edo erakundearen izaeraren arabera kargatzen bada betiere.

**10. artikulua.- (37) Eskubideen eskualdatzeekin parekatutako ekintzak.**

Bahitura, hipoteka eta antikresi hartzekodunen eskubideen subrogazioa eskubide eskualdaketatzat hartuko da, eta foru arau honetako 43. artikuluko Bat idatz zatiko e) letran xedatutako zerga tasaren arabera tributatuko du.

**11. artikulua.- Alokairuekin parekatutako ekintzak.**

Zerga honen ondorioetarako, gasaila eta berrakura kontratuak alokairu kontratuekin parekatuko dira.

**12. artikulua.- (16) Kredituak eta eskubideak eskualdatzea.**

Kredituak edo eskubideak eskuratuz gero, haien bidez ondasun jakinak eta zenbatetsi ahal direnak eskuratuko badira, ondasun eta eskubideok eskualdatzen direnean aplikatu beharreko kontzeptu eta tasa euren arabera ordaindu beharko da Zerga. Hala ere, eraikitzen ari diren higiezinen zerga oinarria kreditua edo eskubidea eskualdatu denean ondasunak eduki duen benetako balioa da (ezin da izan lagapenean ordaindutako kontraprestazioa baino gutxiago.

**13. artikulua.- (11)**

## 2. ATALA. ARAU BEREZIAK

**14. artikulua.- Akzesio printzipioa.**

Eraikin bat hartzen duten lursail edo orubeen salerosketek eta ordain truke egindako eskualdaketek bai lurra bai airea hartzen dutela ulertuko da, eskualdatzaileak eraikina erreserbatzen ez badu edo eskuratzaileak jabetza beste edozein tituluren bidez lortu zuela egiaztatzen ez badu.

**15. artikulua.- Jabetza onartzeak.**

**1.** Jabetza edo beste eskubide baten aitorpena edo onartzea benetako eskualdatzetzat hartuko da pertsonaren ordezkari edo kudeatzaile lana egin izateagatik eta deklarazio edo onartze horiek aipatzen dituen ondasunen jasotzea baieztatzerakoan , botere edo eskari bidez egin denaren titulu edo egiaztagirian izaera eta egoera horiek legalki esleituta azaltzen ez badira, kontuan hartuz, baita ere, ordezkari edo kudeatzaile bezala egindakoa bestelako froga baliabideen bidez ere egiazta daitekeela.

**2.** Ordain truke egindako eskualdaketetan, aldeetako batek eskuratzailea izendatzeko gaitasuna hartzen duenean, bi eskualdatze baieztatuko balira bezala ordainduko da zerga, bata gaitasun hori hartu duenarentzat eta bestea izendatutakoarentzat; egindako lehenengo likidazioan ordaindutakotik ezin izango da itzultzerik egin.

**16. artikulua.- Enkanteak, lagatzeko baldintzapean.**

Besterentzea enkante publiko judizial, notarial edo administratiboan egiten bada eta errematea jaso duen eskaintzaileak, enkantea arautzen duen araudian ezarritako baldintzen arabera, enkantean bertan lagatzeko eskubidea erabili izan badu, eskualdatze bakar bat likidatuko da, lagapen-hartzailearentzat. Enkantearen ondoren adierazten badu eskaintza lagatzeko egin duela, ez da artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko eta bi eskualdatze ezberdin likidatuko dira: bata, errematearen esleipendunarentzat, eta, bestea, lagapen-hartzailearentzat.

**17. artikulua.- (35) Trukatzeak.**

Ondasun edo eskubideak trukatzean, trukatzaile bakoitzak jaso dituenen egiaztatutako balioaren arabera ordainduko du, deklaratutakoa handiagoa ez bada, jasotako ondasun edo eskubideen izaera higigarri edo higiezinari dagokion zerga tasa aplikatuz.

**18. artikulua.- Salmenta promesak.**

Edozein izaerako ondasunen salmentaren promesa ordain truke egingo dela ulertuko da beti eta Foru Arau honen 40. artikuluko 6. atalean ezarritako baldintzetan sortuko du zerga.

**19. artikulua.- Mailegu bermedunak.**

**1.** Fidantzen eta hipoteka, bahitura eta antikresi eskubideen eraketan, mailegu baten berme moduan, mailegu kontzeptu bezala bakarrik ordainduko dute zerga, bermearen eraketa maileguaren eraketa egiten den aldi berean egiten bada edo mailegua ematean bermea eratuko dela xedatzen bada.

**2.** Mailegu pertsonal bezala likidatuko dira kreditu kontuak, zorrak onartzea eta ordaindutako gordailua, aurreko atalean xedatutakoa aplikatuz, hala dagokionean.

**3.** Aurreko atalean maileguarekin parekatutako egintzei Foru Arau honetako 69. artikuluko Bat ataleko B) letrako 19. atalean ezarritakoa aplikatuko zaie, hala dagokionean.

**20. artikulua.- Kreditu kontuak.**

**1.** Mailegu eragiketa egiteko moduak zenbatekoa hasieratik zehazteko aukera ematen ez duenean, kreditu kontuen kasuan gertatzen den bezala, likidazioa mailegu-hartzaileak erabilitako kapitaletik erabilitako kapitaltzat epe horretan kontuak jaurtitako saldo zordunik handiena hartuz helbideratuko da, kreditua urtero likidatzean, edo lehenago ere, eragiketa bukatzen bada.

**2.** Kontuak urtebete baino gehiago irauten badu, lehenengoaren ondorengo ekitaldietarako oinarri hartuko da dagokion ekitaldian ezarritako gehienezko zenbatekoaren eta aurreko ekitaldiei dagokien saldo zordun handienaren arteko diferentzia positiboa, diferentzia positiborik egongo balitz.

**21. artikulua.- (37) Enfiteusi eta erreserba zentsuak.**

Enfiteusi eta erreserba zentsuen eraketan, kontzeptu horrengatik egin beharreko zerga ordainketa gorabehera, ondasunen lagapenari dagokion likidazioa ondasunek duten balioaren arabera egingo da, haien kapitala kenduz.

**22. artikulua.- Salerosketak.**

**1.** Salerosketetan ondasun edo eskubide eztabaidagarriak esleitu, deklaratu edo aitortzen dituen tituluaren arabera likidatuko da zerga, eta, titulua azalduko ez balitz, kostubidezko eskualdaketaren kontzeptuaren arabera.

**2.** Salerosketa, zergen ondorioetarako, salerosketatzat hartzeko, dagokion eskari arruntari bide eman ondoren egitea ezinbestekoa da. Beraz, arazoak benetako izaera eztabaidagarria hartu izan ez balu eta eskubideak onartzea edo ematea aldeen arteko hitzarmen publiko edo pribatuaren bidez egiaztatuko balitz aurreko prozedura penalen hasiera ematearen ondorio ez diren hitzarmenak , ekintza horiek egin diren kontzeptu juridikoaren bidez likidatuko dira, kontratuarekin bat etorriz, aldeek salerosketa oinarritzat alegatzen duten titulua kontuan izan gabe.

**3.** Salerosketan eztabaidagaiari ez dagozkion prestazioak izaten badira (pentsioak eratzea, eskubide errealak aitortzea, eskudiruz ematea, ondasunen aldaketa edo trukaketa eta eskaria egiterakoan izandako ekintza edo tituluaren izaera, salerosketaren objektu diren ondasun edo eskubide errealen osotasuna edo zati batean, aldatzen duten bestelakoak), zerga dagokion kontzeptuaren arabera likidatuko da, aipatu ekintza edo titulua alde batera utzita.

**4.** Prestazio horien ondorioz eskariaren oinarria den ekintza edo tituluaren izaera aldatzen bada, ondasunen alde bati dagokionez eta beste batekiko mantenduta gelditu, zerga aldeetako guztietan likidatuko da, aurreko atalean adierazi den moduan.

**5.** Salerosketaren ondorioz ondasunak edo eskubide errealak aurreko jabearen esku gelditzen direnean, auzian izandako tituluaren arabera, ez du zerga ordainduko, jabetza jaso zuen garaian ordaindutakoa behar bezala justifikatzen bada.

## 3. ATALA. ATXIKITZE EZAKO KASUAK

**23. artikulua.- (16) Kasu orokorrak.**

(42) (48) Titulu honetan araututako "kostu bidezko ondare eskualdaketak" kontzeptuaren mende ez dira egongo zergaren zerga egitatean sartutako eragiketak, eskuratzailearen izaera edozein dela ere, eskualdatzaileak enpresaburuak edo profesionalak direnean beren jarduera ekonomikoa gauzatzean, eta, nolanahi ere, balio erantsiaren gaineko zergari lotutako ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak direnean Hala ere, zerga kontzeptu horren mende egongo dira ondasun higiezinen emateak edo errentamenduak, bai eta ondasun horien gaineko erabilera eta gozamen eskubide errealen eraketa eta eskualdatzea ere, balio erantsiaren gaineko zergaren salbuespena dutenean.

Horiez gainera ondokoak ere salbuetsita daude: subjektu pasibo baten enpresa edo lanbide ondareko elementu gorpuzkorrak eta, hala denean, gorpuzgabeak, hain zuzen ere

enpresa edo lanbide jarduera batean modu autonomoan aritzeko aukera ematen duen unitate ekonomiko autonomoa osatzen dutenak, eskualdatuz gero, eskualdatutako higiezinen emateak, baldin eta ondarearen eskualdaketa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean ez badago.

Aurreko paragrafoan ezarritako kasuetan eskualdatzen diren ondasun higiezinak ez beste ondasunen eta eskubideen emateak ez dira kargapean egongo titulu honetan araupetutako "kostu bidezko ondare eskualdaketak" kontzeptuagatik.

(37) Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa ez da aplikagarri izango konkurtso-prozeduren barruan egindako ekoizpen-unitateen transmisioetan, eskuratzailea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zergapeko bat denean, zeinak eskubidea lukeen ekoizpen-unitatea horien barruko higiezinen entregatzeei dagokien kuotaren kenkari osorako, unitate horiek aipatutako zergatik salbuetsita ez baldin badaude.

**24. artikulua.- Baldintza bereziak.**

**1.** Salerosketaren baldintza erabakigarri baten betetzetik lortutako jabetzaren berreskuratzeak ez du likidazioa “kostubidezko ondare aldaketen” modalitatearen arabera egitea ekarriko, ez badago horrela egiteko xedatzen duen ebazpen bat, judiziala nahiz administratiboa.

**2.** Aurreko atalean xedatutakoa desjabetutakoari, desjabetzea justifikatzen duten helburuak bete ez izanaren ondorioz, jabetza itzultzetik izaten diren eskualdaketei ere aplikatuko zaie.

**3.** (36) Kode zibileko bigarren paragrafoko 821, 829 eta 1056 eta lehenengo paragrafoko 1062. artikuluetako eta oinarri horretan bertan oinarritutako Euskal Zuzenbide Zibileko xedapenak betez gertatzen diren esleipenen soberakinak.

**4.** (1) Ezkontza desegitearen edo erregimen ekonomikoa aldatzearen ondare-ondorio diren ondasun esleipenetatik sortzen diren esleipen soberakinek ere ez dute "kostubidezko ondare eskualdaketaren" modalitatearen araberako likidaziorik sortuko, ezkontideetako bati senar-emazteen ohiko etxebizitza esleitzearen ezinbesteko ondorio direnean. Etxebizitza kontzeptuan bertatik ezin bereiz daitezkeen eranskinak sartuta daudela ulertuko da.

Xedapen berdina aplikatuko zaie, aurreko paragrafoan aipatzen diren kasu berberetan, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ondasun esleipenen soberakinei.

**<u>25. artikulua</u>.- Ondasun higiezinen eskualdaketak.**

**1.** Ondasun higiezinen enpresa eskualdaketak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturiko eta salbuetsi gabekoak, aipatutako zerga horren arabera likidatuko dira, salbuespenik gabe, egintza juridiko dokumentatuak kargatzeari buruz Foru Arau honetako 56. artikuluan xedatutakoa ere kontuan hartuz.

Aurretik ezarritakoa Balio Erantsiaren gaineko Zergan salbuespena aplikatzeari uko egiten zaionean izango da aplikagarri, zerga horren araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

**2.** Aurreko atalekoa ezarri arren, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga "kostubidezko ondare aldaketaren" modalitatearen bidez autolikidatzen bada, horrek ez du, inondik ere ez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren menpe dauden zergadunak kontzeptu horrengatik duten betebeharretatik salbuetsiko, "kostubidezko ondare aldaketaren" modalitatea dela-eta dagozkion gaizki kobratutako zergak itzultzeko eskubidea ere kontuan hartuz, hala dagokionean.

**3.** (37) Era berean, «kostu bidezko ondare eskualdaketaren» modalitatearen bidezko likidazioa egitea egokia izan arren Balio Erantsiaren gaineko Zerga bidegabeki kobratuko balitz, horrek ez lituzke, inondik ere ez, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren pean dauden zergadunak zerga betebeharretatik salbuetsiko, subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela eta dagozkion gaizki kobratutako zergak itzultzeko eskubidea ere kontuan hartuz, hala dagokionean.

## II. KAPITULUA
## ZERGADUNA

**<u>26. artikulua</u>.- Zergaduna.**

Zerga zergadun gisa ordaintzeko beharra izango du, aldeek horren kontra ezarritako edozein akordio gorabehera:

a) Edozein motatako ondasun eta eskubideen eskualdaketan, eskuratzen dituenak.

b) Jabetza espedienteetan, ezaguntasun aktetan, dokumentu publikoen akta osagarrietan eta Hipoteka Legeko 206. artikuluak aipatzen dituen ziurtagirietan, sustatzen dituen pertsonak, eta pertsona jakin baten alde egindako jabetzaren onartzeetan, pertsona horrek.

c) Eskubide errealak eratzean, ekintza hori bere alde egin den pertsonak.

d) Edozein izaerako maileguak eratzean, mailegatzaileak.

e) Fidantzak eratzean, hartzekodun mailegatuak.

f) Alokairuak eratzean, errentariak.

g) Pentsioak eratzean, pentsionistak.

h) Administrazio emakidan, emakidadunak; emakidarekin parekatutako administrazio eta emakida administratiboetan, onuradunak.

**27. artikulua.- Ordezko erantzuleak.**

**1.** Zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioak izango dira:

a) Maileguak eratzean, mailegu emailea, mailegatutako horren interesak edo kapitala, osorik edo zati batean, jasotzen badu, mailegutzaileari zerga ordaindu izanaren justifikaziorik eskatu gabe.

b) Alokairuak eratzean, errentatzailea, errentaren lehenengo epea errentariari justifikazio hori bera eskatu gabe igarotzen bada.

**2.** (19)

## III. KAPITULUA
## ZERGA OINARRIA

### 1. ATALA. ARAU OROKORRAK

**28. artikulua.- Arau orokorra.**

**1.** Zerga oinarria eskualdatutako ondasunaren balio errealak edo eratzen edo uzten den eskubideak zehaztuko du. Foru Arau honetako aginduak betez ezarriko da, Administrazioak benetako balioa egiaztatzeko duen eskumena ere kontuan hartuta.

Ondasunen balio erreala murrizten duten kargak bakarrik izango dira kengarriak, bahitura edo hipotekarekin bermaturik dauden zorrak ez.

Ondasunaren gaineko Zergaren ondorioetarako ezarritako balorazio arauak bakarrik subsidiarioki aplikatuko dira.

**2.** Zehazki, Foru Arau honetako hurrengo artikuluetan bildutako arauak aplikatuko dira.

**29. artikulua.- Enkante publikoko eskualdaketak.**

Enkante publiko, notarial, judizial edo administratiboaren bidez egindako eskualdaketetan erremate prezioa eta esleipendunak hartzen dituen kargak osatuko dute oinarria.

## 2. ATALA. ARAU BEREZIAK

**30. artikulua.- (37) Ondasun higiezinak.**

Landa eta hiri ondasun higiezinak Arabako Foru Aldundiak berariaz ematen dituen arauei jarraituz balioetsiko dira. Arau horiek aldian behin eguneratuko dira, balioak unean uneko egoera ekonomikoari egokitzeko.

Aurreko paragrafoak aipatzen dituen arauetatik sortutako balioa dagokion aitorpena egiteko gutxieneko balio konputagarritzat hartuko da.

Aurrekoa gorabehera, zergadunak gutxieneko balio konputagarria balio erreala baino handiagoa dela pentsatzen badu, agirian agertzen den balioaren gainean egin beharko du autolikidazioa.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Administrazioak balio erreala egiaztatzeko duen eskumena hartu beharko da kontuan.

Artikulu honek aipatzen duen balioen eguneratzeak ez du zertan Arabako Foru Aldundiak horretarako emandako arauetan jasotako kasu, suposamendu, kontzeptu edo zatitze guztietan berdina izan.

**31. artikulua.- (35) Automobilak, ontziak eta hegazkinak.**

Ibilgailu automobilak, itsasontziak eta aireontziak balioesteko, Arabako Foru Aldundiak berariaz ezartzen dituen arauak erabiliko dira.

Aurreko paragrafoak aipatzen dituen arauetatik sortutako balioa dagokion likidazioa egiteko gutxieneko balio konputagarritzat hartuko da. (37)

Aurrekoa gorabehera, subjektu pasiboak gutxieneko balio konputagarria balio erreala baino handiagoa dela uste duenean, hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du autolikidazioarekin batera.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Administrazioak balio erreala egiaztatzeko duen eskumena hartu beharko da kontuan.

**32. artikulua.- Gozamena, erabilera eta bizileku hartzea.**

**1.** Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioen proportzionaltzat joko da, % 2 urtebeteko epealdi bakoitzeko, eta gehienez ere % 70.

Aldi baterako gozamenaren balioa zenbatzeko ez dira kontuan hartuko urtebete baino gutxiagoko denbora tarteak, eta urtebete baino gutxiagorako gozamena ondasunen balioen % 2an zenbatuko da.

**2.** Bizitza osorako gozamenen balioa ondasunen balio osoaren % 70 izango da, gozamendunak hogei urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa izango da balioa, hain zuzen ere, % 1 gutxiago urte bakoitzeko eta, gehienez, balio osoaren % 10era iritsiko da.

**3.** Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamena 30 urte baino gehiagorako edo aldi mugagabe baterako ezartzen bada, gozamen hori baldintza erabakigarriaren menpe dagoen jabetza osoko eskualdaketatzat joko da, zergei dagokienez.

**4.** Jabetza hutsen eskubideen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatuko da. Aldi baterakoak diren bizitza osorako gozamenetan jabetza hutsa aurreko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuz kalkulatuko da.

**5.** Erabiltzeko eta bertan bizitzeko ondasunekiko eskubideen balioa, eskubide horiek jasotako ondasunen balioaren % 75ari, kasuan kasu, aldi baterako edo bizitza osorako gozamenen balorazioari buruzko arauak aplikatuz lortuko da.

**33. artikulua.- Jabetza finkatzea.**

Jabetza finkatzen denean, jabe soilak haren ondarean sartzen den eskubidearen balioaren arabera ordainduko du zerga hau.

**34. artikulua.- Administrazio emakidak.**

**1.** Zerga oinarria zehazteko arau orokor gisa, jarraian adierazten direnen artean emakidadunari ezarritako betebeharren izaeraren arabera aplikagarriak diren araua edo arauak aplikatzetik zehaztuko da emakidak sortutako eskubidearen balio erreala:

a) Administrazioak emakidadunak bete behar duen prezioaren edo kanonaren zenbateko osoa adierazten badu, zenbateko hori.

b) (16) Administrazioak kanona, prezioa, partaidetza edo gutxieneko mozkina ezartzen badu, emakidadunak aldizka ordaindu beharrekoa, eta emakidaren iraupena urtebete baino luzeagoa ez bada, aldizkako prestazioen guztirako batura. Emakidaren iraupena urtebete baino luzeagoa bada, emakidadunak

urtean ordaintzen duen kopuruaren kapitalizazioa, iraupenaren arabera, ehuneko 10 aplikatuta.

Baldin eta erregela hau aplikatzeko prezioen berrikuspenaren klausulak, erreferentziatzat haien bilakaeraren indize objektiboak hartzen dituztenak, aplikatzearen ondorioz aldatzen den urteko kopurua kapitalizatu behar bada, lehenengo urtekoa kapitalizatuko da. Urteko kopurua beste inguruabar batzuen arabera aldatzen bada eta emakida egiten denean haien arrazoi matematikoa ezagutzen bada, emakidadunak emakidaren iraunaldian ordaindu beharreko kopuruen bataz bestekoa kapitalizatuko da.

c) (3) Emakidadunak Administrazioari itzuli behar badizkio ondasun jakin batzuk, zenbatuko da itzultze datan ondasun horiei jotzen zaien kontabilitateko balio garbia, gehi itzultzerako aurreikusten diren datuak. Ondasunen kontabilitateko balio garbia kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren ondoriotarako onartutako amortizazio taulak aplikatuko dira, ateratzen den batez besteko ehunekoan.

**2.** (5) Kasu berezietan, emakidaren izaeraren ondorioz zerga-oinarria aurreko idatz-zatiko arauen bitartez finkatzerik ez dagoenean, honako arauen bitartez zehaztuko da:

a) Kasuan kasuko ustiapenak, erabilerak edo aprobetxamenduak lotuta dituen aktibo finkoen balioari %2ko portzentajea aplikatuko zaio emakidak dirauen urte bakoitzeko; betiere %10 aplikatuko zaio gutxienez, eta gehieneko zenbatekoa ez da izango aktiboen balioa baino handiagoa.

b) Horrelako balioespenik ezean, kasuan kasuko Herri Administrazioak adierazitako balioespena hartuko da aintzat.

c) Aurreko bi arauetatik bat ere aplikatzerik ez dagoenean, interesdunek aitortutako balioa hartuko da aintzat. Betiere Administrazioak eskubidea izango du balioa egiaztatzeko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan adierazitako bideetatik.

**35. artikulua.- Hipotekak, bahiturak eta antikresiak.**

Hipotekak, bahiturak eta antikresiak bermatutako obligazioaren edo kapitalaren zenbatekoaren arabera balioztatuko dira, interesek, kalte ordainek eta beste antzeko kontzeptuek sortutako baturak kontuan hartuta. Bermatutako zenbatekoa berariaz ez badago idatzita, kapitala eta hiru urteko interesak hartuko dira kontuan.

**36. artikulua.- Bestelako eskubide errealak.**

Aurreko artikuluetan sartzen ez diren eskubide errealak aldeek adostutako kapitalarekin, prezioarekin edo balioarekin egotziko dira, betiere Zergako, errentako edo urteko pentsioko sortzapen egunean indarrean dagoen diruaren legezko interesaren kapitalizaziotik lortzen denaren balio berekoa edo handiagoko bada, edo bigarrena lehena txikiagoa baldin bada.

**37. artikulua.- Atzera erosteko paktuzko salmenta.**

**1.** Atzera erosteko klausularekin ondasunak eta eskubideak eskualdatzen direnean, adierazitako prezioak balioko du oinarritzat, horien balio onartuaren bi heren edo gehiago duenean.

**2.** Atzera eskuratzeko eskubidea eskualdatzean, eskualdatutako ondasunen edo eskubideen egiaztatutako balioaren herenak balioko du oinarritzat, aitortutako prezioa hori baino altuagoa denean izan ezik.

**3.** Atzera eskuratzearen eskubidea gauzatzen denean, atzera egindako ondasunen edo eskubideen egiaztatutako balioaren bi herenak balioko du oinarritzat, atzera eskuratzearen prezioaren balio bera edo handiagoa duenean.

**38. artikulua.- Alokatzeak.**

Alokairuetan, kontratuak dirauen bitartean ordaindu beharreko zenbateko osoa hartuko da oinarritzat; iraupen eperik ezean, sei urteko likidazioa hartuko da kontuan. Hala ere, likidazio gehigarriak ordaindu beharko dira, baldin eta epe hori igarotzean kontratuak indarrean jarraitzen badu. Nahitaezko luzapenari atxikirik dauden hiri finkak alokatzeko kontratuetan, gutxienez, hiru urteko iraupena hartuko da kontuan.

**39. artikulua.- Pentsioak.**

Pentsioen zerga-oinarria lortzeko, pentsiook diruaren legezko korritu-tasaren arabera kapitalizatuko dira eta emaitzako kapitaletik zati bat hartuko da, gozamenak balioesteko ezarritako erregelen arabera pentsiodunaren adinari dagokion zatia hain zuzen, pentsioa biziartekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterakoa bada. Pentsioaren zenbatekoa moneta unitateetan zenbatzen ez bada, zerga oinarria lanbide arteko gutxieneko soldatako urteko kopurua kapitalizatuta lortuko da.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, urterokoari dagokion zenbatekoa kapitalizatuko da.

**40. artikulua.- Zerga oinarriari buruzko beste arau batzuk.**

1. Bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzen diren balioen eskualdatzeetan, eskuratzea gauzatzen den eguneko kotizazioaren balioak balioko du zerga oinarritzat, eta, halakorik ezean, eskualdatzeak negoziatu diren egunaren aurreko lehen eguneko balioak, betiere aurreko hiruhilekoaren barruan.

2. Esleipendunaren alde obra, zerbitzu edo horniketa kontratutik eratorritako eskubideen ordain truke egindako eskualdaketetan, zerga oinarritzat hitzartutako prezioak balioko du, eta, prezioa zehaztu gabe badago, edo hori baino txikiagoa bada, gauzatu beharreko kontratuko xede den prestazioan ezarritakoaren % 6 izango da.

3. Ureztatzeko urak inskribatzeko baimendutako nabaritasun-aktetan, bai Jabetzaren Erregistroan bai Administratiboetan, oinarritzat hartuko da ura hartzen duten lurrei esleitutako zerga aberastasunaren % 16ko kapitalizazioa.

4. Finka landatarren gasailetan, Ondasun Higiezinen gaineko Zergan kontratuaren xede den finkari esleitutako katastroko balioaren % 3 kontratuak irauten duen urte kopuruarekin bidertuz lortutako balioa hartuko da oinarritzat.

5. Mailegatzailearen berme pertsonala besterik ez duten maileguetan, fidantza bidez aseguratuetan eta zorrak onartzeko kontratuetan eta ordaindutako gordailuetako kontratuetan, gordailuan utzitako betebeharraren edo balioaren kapitala. Kreditu kontuetan, mailegatzaileak benetan erabilitakoa. Hipoteka, bahitura eta antikresi bidez bermatutako maileguetan, foru arau honetan ezarritako 35. artikuluan ezarritakoa beteko da.

6. Zergari atxikitako kontratuen promesak eta aukerak kontratuekin parekatuko dira. Horretarako, hitzartutako prezio berezia hartuko da oinarritzat, eta, halakorik ezean, edo, prezioa txikiagoa balitz, kontratuei aplika dakiekeen zerga oinarriaren % 5.

## 3. ATALA. BESTELAKO ARAUAK

**41. artikulua.- Bestelako arauak.**

1. (37) Enfiteusi eta erreserba zentsuen eraketan, kontzeptu horrengatik egin beharreko zerga ordainketa gorabehera, ondasunen lagapenari dagokion likidazioa ondasunek duten balioaren arabera egingo da, haien kapitala kenduz.

2. Salerosketetan ondasun edo eskubide eztabaidagarriak esleitu, deklaratu edo aitortzen dituen tituluaren arabera likidatuko da zerga, eta, titulua azalduko ez balitz, kostubidezko eskualdaketaren kontzeptuaren arabera.

**41 bis artikulua.- (36) Foru saka eta lehentasunezko eskubidea.**

1. Euskal Zuzenbide Zibila aplikatuta, ahaide tronkalek, foru deiak egin, eta Aramaio eta Laudioko udal mugarteetan dauden ondasun tronkalen besterentzeetan ondasunak lehentasunez eskuratzeko eskubidea erabiltzen dutenean, peritu tasazioaren bidez zehaztutakoa hartuko da eskuraketa baliotzat, halako tasaziorik egin bada.

2. Ondasun tronkalak besterendu baino lehen foru deirik egin ez, eta, horren ondorioz, saka eskubidea erabiltzeko, senide tronkaletako batek besterentzea deuseztatzeko akzioa egikaritzen badu, senide tronkalak ordaindu behar duen prezioa zehazteko peritu tasazioa egingo dute berariaz izendatutako pertsonek, eta tasazio horren bidez ezarritakoa hartuko da eskualdaketa baliotzat, Euskal Zuzenbide Zibila aplikatuz.

   Kasu horretan, ordaindutako zergaren itzulketa eskatzeko eskubidea izango du erosleak, Foru Arau honen 83. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3. Aurreko idatz zatietan ezarritakoari kalterik egin gabe, arau bidez ezarritako gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoek jasotako aplikagarri zaien ondasun tronkalen eskualdaketei dagokienez, aplikatu ahalko da Foru Arau honek bere 71. artikuluan balioak egiaztatzeko arautako prozedura.

## IV. KAPITULUA
## LIKIDAZIO OINARRIA

**42. artikulua.- Likidazio oinarria.**

1. Foru arau honetan jasotako murrizketetan zerga oinarria ezartzearen ondorioz lortzen den emaitza izango da likidazio oinarria.

2. Murrizketak aplikatzea bidezkoa ez denean, likidazio oinarria eta zerga oinarria bat etorriko dira.

3. Zerga oinarrian murrizketak aplikatzearekin ezingo da inola ere likidazio oinarri negatiboa lortu.

## V. KAPITULUA
## ZERGA KUOTA

**43. artikulua.- Zerga tasak.**

**Bat.** (16) Hurrengo artikuluan adierazitakoaz gain, zerga kuota likidazio oinarriari honako tasak aplikatuta lortzen da:

a) (30) (48) Ondasun higiezinak eskualdatzen direnean, bai eta horiek sortzen dituzten eskubide errealak eratzen eta lagatzen direnean ere, ehuneko 7 izango da, bermeko eskubide errealak direnean izan ezik.

b) (36) Aurreko letran xedatuta dagoena gorabehera, etxebizitzen eskualdaketek, orokorrean, garaje plazen eskualdaketak barne direla (gehienez bi eta beraien eranskinak, eraikin berekoak eta denak batera eskualdatzen direnean), % 4ko karga tasa jasango dute. Honetatik salbu daude ondoko letran azaldutakoak. Hori dela eta, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Halaber, ez dira etxebizitzatzat hartuko hirigintzako sustapen bati ekin aurretik erauzteko diren etxebizitzak.

c) (30) (43) 1. Eskualdaketa hauek ehuneko 2,5eko zerga tasa izango dute:

- 120 metro karratu baino gehiagoko azalera eraikia ez daukaten etxebizitzak, eta aurreko b) letran aipatutako garajeak eta eranskinak.

- 120 metro karratu baino gehiagoko azalera eraikia ez daukaten familia bakarreko etxebizitzak eta lurzatiaren azalera, eraikinak okupatutakoa barne, baldin eta eraikina dagoen lurzatiak ez badauzka 300 metro karratu baino gehiago.

c) letra honen ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzatzat joko da sarrera independentea daukana; eraikin bakarra izan daiteke, bikoa, itsatsia edo lerrokoa, baina inolaz ere ez talde eraikina.

2. Honako eskualdaketa hauek ere 2,5eko zerga tasa izango dute, eskuratzailea familia ugariaren titularra izanez gero:

- Aurreko b) letran aipatutako etxebizitzak, garajeak eta eranskinak.

- Familia bakarreko etxebizitzak.

c) letra honetan aipatzen den ehuneko 2,5eko tasa aplikatzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

1. Eskuratzaileak ezin du eduki beste etxebizitza baten jabetzaren ehuneko 25 baino gehiago eskuratu nahi den etxebizitza kokatuta dagoen udalerri berean.

2. Etxebizitza eskuratzailearen ohiko bizileku gisa erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzeko arauetan aipatzen den moduan.

2. zenbaki honetan jasotako betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa hamabi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, etxebizitza erosten denetik zenbatzen hasita. Betekizun hori betetzen dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira.

3. Eskuratze agirian adieraztea letra honetan adierazitako betekizunak betetzen direla edo beteko direla.

Letra honetan xedatutakoa aplikatzeko, azalera eraikia fatxaden lerro perimetralen (kanpokoak zein barrukoak) eta mehelinen ardatzen barnean dagoena da.

Estalita dauden hegalkinak, balkoiak edo zabaltzak eraikitako azaleraren parte dira, alboetan hormek mugatzen badituzte; bestela, azaleraren ehuneko 50 besterik ez da kontuan hartuko, modu berean neurtuta.

c) letran aipatutako azalera eraikiaren barruan inolaz ere ez da zenbatu behar erkidegoaren elementuen zati proportzionalaren azalera.

3. Ehuneko 1,5eko zerga tasa izango dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauaren hogeita hamalaugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gune edo eremuetan kokatuta dauden etxebizitzen eskualdaketa hauek:

- Aurreko b) letran aipatutako etxebizitzak, garajeak eta eranskinak.

- Familia bakarreko etxebizitzak.

Ehuneko 1,5eko tasa hori aplikatzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

1. Eskuratzaileak ezin du eduki beste etxebizitza baten jabetzaren ehuneko 25 baino gehiago eskuratu nahi den etxebizitza kokatuta dagoen udalerri berean.

2. Etxebizitza eskuratzailearen ohiko bizileku gisa erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzeko arauetan aipatzen den moduan.

2. zenbaki honetan jasotako betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa hamabi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, etxebizitza erosten denetik zenbatzen hasita. Betekizun hori betetzen dela egiaztatzeko, zuzenbidean onartutako frogabideak erabili ahal izango dira.

3. Eskuratze agirian adieraztea betekizun horiek betetzen direla edo beteko direla.

d) (28) Ondasun higigarrien, azienden eta administrazio kontzesioen eskualdaketetan, bai eta horiek sortzen dituzten eskubide errealak eratzen eta lagatzen direnean ere, ehuneko 4a izango da, bermeko eskubide errealak direnean izan ezin.

Tasa hori Balio Erantsiaren gaineko Zergari edo Turismo erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltze eta truke kontratuei eta zerga arauei uztailaren 6ko 4/2012 Legean jasotako eskubideei buruzko Kanarietako Zeharkako Zergaren kargapean ez dauden norbanako subjektuen arteko eskualdaketei aplikatuko zaie, izaera gorabehera.

Orobat, tasa hori aplikatuko zaie artikulu honetako gainerako letretan jasotzen ez diren zergapeko gainerako egintza guztiei.

e) % 1 izango da bermeko eskubide errealak, pentsioak, fidantzak edo maileguak direnean, bai eta betebeharrek ordezkatutakoak direnean ere, edota edozein motatako kredituak lagatzen direnean ere.

f) Egintza edo kontratu berean ondasun higigarriak eta higiezinak dagokien balioaren zatia zehaztu gabe jasotzen direnean, aurreko a) letran jasotzen den higiezinen zerga tasa aplikatuko da.

g) Esleipenean gehiegikeria dagoenean, betiere esleitutako ondasunak eta eskubideak beren artean ezberdinak direnean, tasa aplikagarria ezartzearen ondorioetarako gehiegikeria aplikatuko zaie tributazioko tasa txikiagoa dagokien ondasunen eskualdatzeari eta tasa handiagoa dutenekin amaitu egingo da.

h) (46) Aurreko a) letraren salbuespen gisa, jarduera ekonomiko berri baterako zuzenean eta modu eragingarrian erabiliko den ondasun higiezin baten eskualdaketaren gaineko karga tasa ehuneko 2,5ekoa izango da, honako baldintza hauek betez gero:

1. Ondasun higiezina eskuratzen duten pertsona guztiek jarduera ekonomikoa pertsonalki eta zuzenean egin behar dute, eta jarduera hori egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak eduki behar dituzte.

2. Jarduera ekonomikoari ondasun higiezina eskuratzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio.

3. Jarduera ekonomikoa urte osoan egin behar da. Beraz, sasoiko edo asteburuetako jardueretan ezin da aplikatu salbuespena.

4. Eskuratzaileak gutxienez bost urtez egin behar du jarduera ekonomikoa.

5. Aurreko zenbakian ezartzen den aldian, gutxienez, ondasun higiezina jarduera ekonomikoari atxikita egon behar da.

6. Ondasun higiezina ezin da eskualdatu apartatu honen 4. zenbakian ezartzen den aldian, honako kasu honetan izan ezik: eskualdaketa eragin duena jarduera ekonomikoa egiten duten pertsonetako baten edo batzuen heriotza izatea (haiei dagokien zatia baino ez).

7. Jarduera ekonomiko bati ekin zaiola onartzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko berria modu errealean eta eragingarrian agertzea, eta jarduera hori lehen beste modu batean edo beste titulartasun batekin egina ez izatea.

8. Jarduera ekonomikoa ezin da izan ondare higigarria edo higiezina kudeatzea.

9. Pertsona fisiko bakoitzari behin bakarrik aplikatu ahal izango zaio letra honetan arautzen den karga tasa.

**Bi.** (16) Zergapekoa pertsona fisikoa bada eta eragiketa jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoen lokal bat etxebizitza izateko gaitzea bada, Zerga Administrazioak, zergapekoaren eskaera jasoz gero, Zergaren kargarengatik ordaindutako zenbatekoaren eta eskualdatutako higiezinari aplikatu beharreko tasa aplikatzearen emaitzako kopuruaren arteko diferentzia itzuliko du. Nolanahi ere, horretarako artikuluko honetako lehenengo idatz zatiko b) eta c) letretan bidezko karga tasa aplikatzeko ezarritako betekizunez gainera zergapekoak lokala etxebizitza gisa lehenengoz erabiltzeko edo okupatzeko lizentzia daukala frogatu behar du eskualdaketa gertatzen denetik 18 hilabete pasatu baino lehen. Itzulketak ez du sortuko berandutze korriturik.

**44. artikulua.- (37) Alokairuetarako zerga tasa.**

**1.** Hiri finken errentamenduengatik dirutan ordainduko da zerga, honako eskala honen arabera:

| EUROAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Gehienez | 30,05 | | | 0,09 |
| | 30,06 | | 60,10 | 0,18 |
| | 60,11 | | 120,20 | 0,39 |
| | 120,21 | | 240,40 | 0,78 |
| | 240,41 | | 480,81 | 1,68 |
| | 480,82 | | 961,62 | 3,37 |
| | 961,63 | | 1.923,24 | 7,21 |
| | 1.923,25 | | 3.846,48 | 14,42 |
| | 3.846,49 | | 7,692,95 | 30,77 |
| 7.692,96tik aurrera, 0,024040 euro 6,01eko edo frakzio bakoitzeko. | | | | |

**2.** Zerga ehuneko 1eko tasarekin ordainduko dute mota guztietako ondasunen, obren, zerbitzuen, eskubideen eta aprobetxamenduen errentamenduek, aurreko idatz zatian jasotakoek izan ezik.

## II. TITULUA
## SOZIETATE ERAGIKETAK

## I. KAPITULUA
## ZERGAPEKO EGITATEA

**45. artikulua.- (14) Zerga gaia.**

**1.** Zergapeko sozietate eragiketak:

1º. Sozietatea eratzea, sozietatearen kapitala gehitzea eta gutxitzea, eta sozietatea desegitea.

2º. Bazkideen ekarpenak, sozietatearen kapitala gehitu ezean.

3º. Sozietatearen zuzendaritza egoitza edo sozietatearen egoitza Arabako Lurralde Historikora aldatzea, Europar Batasuneko estatu batean egon ez badira.

**2.** Ez daude zergapean:

1º. Birmoldaketa eragiketak.

2º. Sozietatearen egoitza edo zuzendaritza egoitza Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzea.

3º. Sozietatearen eraketa eskritura edo estatutuak aldatzea, eta bereziki sozietatearen helburua aldatzea eta iraunaldia aldatzea edo luzatzea.

4º. Akzioen jaulkipen primek esklusiboki eratutako erreserben kontura egiten diren kapital zabalkuntzak.

5º. (18) Ondoren zehaztuko diren aktibo eta pasiboen eskualdaketak, nahiz eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 90. eta 101. artikuluetan aipatzen diren eragiketak izan ez, baldin eta beraien emaitza ekonomikoak baliokideak badira:

a) Inbertsio koefizienteei, norberaren baliabideei eta finantza bitartekarien informazio betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatz zatiko d) letran aipatzen dena bezalako babeseko erakunde sistema bat eratzeko eta zabaltzeko egiten direnak.

b) Bankuak berregituratzeari eta kreditu erakundeen baliabide propioak indartzeari buruzko ekainaren 26ko 9/2009 Errege Lege Dekretuko 7. artikuluan aipatutako Bankuen Berregituraketa Ordenatua egiteko Funtsak parte hartuta, kreditu erakundeak berregituratzeko prozesuetan egiten direnak.

**3.** Sukurtsal edo establezimendu egonkorren bitartez Espainiako lurraldean trafiko eragiketak egiten dituzten erakundeek, baldin eta sozietatearen egoitza eta benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean badaude, Zergaren karga jasango dute, Arabako erakundeen kontzeptu eta baldintza berak aplikatuta, eragiketa horietan erabiltzen duten kapitalaren arabera.

**4.** Sozietatearen egoitza eta benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasuneko estatu batean badaude, Espainia ez beste batean, sukurtsal edo establezimendu iraunkorren bitartez Arabako lurraldean egiten diren trafiko eragiketak ez dira egongo zergapean sozietate eragiketen modalitatean. Halaber, erakundearen benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean badago eta sozietatearen egoitza Espainia ez Europar Batasuneko beste estatu batean badago, aipatu eragiketak ez dira zergapean egongo.

**46. artikulua.- (35) Birmoldaketa eragiketak zer diren.**

Sozietate eragiketen gaineko karga kalkulatzeko, berregituratzeko eragiketak dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 101. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. idatz zatietan zehaztutako bat egiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak eta balore trukaketak, bai eta foru arau horretako 111. artikuluan aipatzen diren diruzkoak ez bestelako ekarpenak ere.

**47. artikulua.- Sozietateekin parekatutako erakundeak.**

Zerga honen ondoriotara, honako hauek parekatuko dira sozietateekin:

a) Sozietateak ez diren eta mozkina ateratzeko asmoa daukaten pertsona juridikoak.

b) Partaidetzako kontuko kontratuak.

c) Itsasontzien jabekidetza.

d) Ondasunen erkidegoa, bizien arteko ekintzek osatuta eta enpresa jarduerak gauzatzen dituena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak xedatutakoa kontuan hartuta.

e) Mortis causa ekintzek osatu edo sortutako erkidego berak, kausatzailearen negozioaren ustiatzea hiru urte baino epe handiagoan banatuko ez dela hitzartuta arraitzen badu. Likidazioa, jakina, egokia den itzulketarako eskubidea kontuan hartuta gauzatuko da, erkidegoa aipatutako epea bukatu gabe desegiten bada.

## II. KAPITULUA
## ZERGADUNA

**48. artikulua.- (14) Subjektu pasiboa.**

Zergadun gisa, eta alderdiek aurka ezarritako hizpaketak gorabehera, ondokoek ordaindu behar dute Zerga:

a) Sozietate bat eratzen denean, kapitala gehitzen denean, benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietatearen egoitza aldatzen denean eta bazkideek ekarpenak egiten dituztenean sozietatearen kapitala gehitu gabe, sozietateak.

b) Sozietate bat desegin denean eta sozietatearen kapitala murrizten denean, sozietateko bazkideek, jabeek, erkideek edo partaideek, jasotako ondasun eta eskubideen arabera.

**49. artikulua.- (14) Erantzule subsidiarioak.**

Sozietate bat eratzen denean, sozietate baten kapitala gehitzen edo murrizten denean, bazkideek ekarpenak egiten dituztenean sozietatearen kapitala gehitu gabe, sozietatea desegiten denean eta benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietatearen egoitza aldatzen denean, Zergaren ordainketaren erantzule subsidiarioak dira Zergaren kargapeko egintza juridikoan parte hartzen duten sustatzaileak, administratzaileak edo likidatzaileak, baldin eta ekarritako kapitalaren ardura hartu badute edo ondasunak eman badituzte.

## III. KAPITULUA
## ZERGA OINARRIA

**50. artikulua.- (14) Zerga oinarria.**

**1.** Bazkideen erantzukizuna nolabait mugatzen duten sozietateen kapitala osatu eta zabaltzean, zerga oinarria kapitala hasiera batean finkatzen den zenbateko nominalarekin bat edo jaulkipen primak eranstean finkatutako zenbateko nominalarekin bat etorriko da, primak bidezkoa denean eskatzen direla.

**2.** Aurrekoak ez beste sozietate batzuek egindako eragiketen kasuan eta sozietatearen kapitala gehitzen ez duten bazkideen ekarpenen kasuan, zerga oinarria ekarpenaren balio gordina izango da, eta ekarpenaren balio gordina honela kalkulatuko da: ekarritako ondasunen eta eskubideen benetako baliotik karga eta gastu kengarriak eta ekarpenaren ondorioz sozietatearen kargura geratzen diren zorren zenbatekoa kenduko dira.

**3.** Benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietatearen egoitza aldatzen bada, zerga oinarria sozietatearen hartzeko likidoa izango da, hain zuzen ere erabakia hartzen den eguneko hartzeko likidoa.

**4.** Sozietate baten kapitala murriztu denean eta sozietatea desegiten denean, zerga oinarria bazkideei emandako ondasun eta eskubideen benetako balioa izango da, gastuak eta zorrak kendu gabe.

## IV. KAPITULUA
## ZERGA KUOTA

**51. artikulua.- Zerga kuota.**

Zerga kuota honela zehaztuko da: likidazio oinarriari % 1eko zerga tasa aplikatuz.

# III. TITULUA
# EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK

## I. KAPITULUA
## PRINTZIPIO OROKORRAK

**52. artikulua.- Modalitateak.**

**1.** Zergaren mende daude, honako artikuluetan ezartzen den moduan:

a) Notaritzako dokumentuak.

b) Merkataritzako dokumentuak.

c) Administrazioko dokumentuak.

**2.** Kuota finko edo aldakorren bitartez ordainduko da zerga, gauzatu edo ematen den dokumentuaren xedea kopuru edo gauza balioztagarri bat izanez gero, indarrean dagoen edozein unetan.

**3.** Notaritzako dokumentuak paper tinbredunean emango dira nahitaez.

## II. KAPITULUA
## NOTARITZAKO DOKUMENTUAK

**53. artikulua.- Zerga-egitatea.**

Zergaren mende daude eskriturak, aktak eta notario adierazpenak, foru arau honetako 56. artikuluak ezartzen duenarekin bat.

**54. artikulua.- Zergaduna.**

Ondasuna edo eskubidearen erosleak, eta, bestela, notaritzako dokumentuak eskatzen dituzten pertsonak, edota dokumentuen interesdunak.

Mailegu bermedun bat osatzeko eskriturak direnean, mailegu-hartzailea eroslea dela joko da.

**55. artikulua.- Zerga oinarria.**

1. Xede zuzentzat kopuru edo gauza balioztagarri bat daukaten eskritura publikoen lehenengo kopietan aitortutako balioak osatuko du oinarria, administrazioak egiaztatuko duela kontuan hartuta. Bermeko eskubide errealei eta mailegu bermedunak dokumentatzen dituzten eskriturei dagokienez, bermatutako obligazioaren edo kapitalaren zenbatekoak osatuko du zerga oinarria, interesek, kalte ordainek eta beste antzeko kontzeptuek sortutako baturak kontuan hartuta. Bermatutako zenbatekoa berariaz ez badago idatzita, kapitala eta hiru urteko interesak hartuko dira kontuan.

   Hipotekak edo beste edozein berme eskubidea atzeratu eta maila hobetzen dutenean, maila eskasagoa duen eskubideari lotutako ardura osoak osatuko du zerga oinarria. Maila berdintzen denean, lehenik eta behin ezarritako berme eskubideari lotutako arduraren guztirako zenbatekoak osatuko du zerga oinarria.

2. Notaritzako aktetan aurreko idatz-zatian ezarritakoa hartuko da kontuan, protesto akten kasuan ezik, non protestatutako efektuaren balio nominalaren edota protestoa eragindako kopuruaren herenarekin bat etorriko den zerga oinarria.

3. Ekintzaren xedea balioztagarria ez dela joko da, indarrean dagoen epe guztian zehar —iraungitzearen unea barne— oinarriaren zenbatekoa ezin denean zehaztu. Zenbateko hori ekintza egitean ezin bada zehaztu, xede ez balioztagarria balitz bezala eskatuko da zerga, likidazioa zenbatekoa zehaztean osa daitekeela kontuan hartuta.

4. Dena dela, zerga-oinarria zehatzeko, dagokion kasuetan, aplikatu egingo da Foru Arauko 30. artikuluan xedatutakoa.

**56. artikulua.- Zerga kuota.**

1. (19) Notario akten matrizeak eta kopiak, hala nola lekukotzak, folio bakoitzeko 0,300506 euroko paper tinbratuan egingo dira. Kopia soilak ez daude zergapean. (20)

   Aurreko paragrafoan xedatutakoa egilesle beraren izenean egiten den bigarren kopiari eta hurrengoei ere aplikatuko zaie.

2. Notaritzako eskritura eta akten lehenengo kopiek, kopuru bat edo balioztagarria den zerbait badute xede, Jabetzaren, Merkataritzaren eta Ondasun Higiezinen erregistroetan eta Espainiako Patenteen eta Marken Bulegoan inskriba daitezkeen eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zein foru arau honetako 1. artikuluko

1. idatz-zatiko 1. eta 2. zenbakietan jasotako kontzeptuen menpean ez dauden egintza edo kontratuak jasotzen dituztenean, % 0,5eko zerga tasan ordainduko dute, halako egintza edo kontratu diren aldetik. Tasa berean ordainduko dute, efektu tinbredunen bidez, protesto akten kopiek.

## III. KAPITULUA
## MERKATARITZA DOKUMENTUAK

**57. artikulua.- Zerga-egitatea.**

**1.** Zergapean izango dira kanbio letrak, igorpenaren betebeharra osatzen duten dokumentuak edota igorpena ordezkatzen duten dokumentuak, gordailu eskualdagarrien ordezkagiriak edo ziurtagiriak, eta seriean jaulkitako beste antzeko tituluak, 18 hilabeteak gainditzen ez duen epean, besteen kapitalak ordezkatzen dituztenak, eta jaulkipenak ordaindutako zenbatekoaren eta epea bukatzean bueltatzeko konpromisoa hartutakoaren arteko aldearen bidez ezarritako kontraprestazioa kapital horiengatik ordaintzen badira.

**2.** Dokumentu batek igorpenaren betebeharra egiten duela joko da funtsak edo zeinu baliokidea alde batetik bestera bidali dituela egiaztatuz gero, edo ordainketa agindu bat berekin ekarriz gero, agindu hori eman den dokumentu berean izanda ere, bai eta "agindurako " klausula bat idatzita dagoenean ere.

**58. artikulua.- Zergaduna.**

**1.** Igorlea egongo da ordaintzera behartuta, kanbio letra atzerrian eginda egon ezean, kasu horretan, hark Araban daukan lehenengo edukitzaileak izango du betebeharra, horrek Araban izanez gero ohiko egoitza edo zerga egoitza.

**2.** Kanbio letren igorpeneko dokumentuak edo dokumentu ordezkatzaileak zergei lotuta egongo dira, bai eta seriean jaulkitako gordailuen ordezkagiriak, ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko tituluak ere, zergadunak horiek guztiak ematen dituzten pertsona edo erakundeak direlarik.

**59. artikulua.- Erantzule solidarioa.**

Zerga ordaintzearen erantzule solidario izango da aurreko artikuluan zehaztutakoaren eraginak kobratzean edo negoziazioan esku hartzen duen pertsona edo erakunde oro.

**<u>60. artikulua</u>.- Zerga oinarria.**

**1.** Kanbio letran, igorritako kopurua izango da oinarria; eta gordailu ziurtagirietan, zenbateko nominala.

**2.** Kanbio letren mugaeguna, igorri ziren datatik hasita sei hilabete baino gehiagokoa bada, oinarriaren bikoitzari dagokion Zerga eskatuko da.

Egintza edo negozio juridiko bati dagokion kanbio letraren ordez bi letra edo gehiago igorri eta Zerga murrizten bada, oinarri egokiak gehitzea bidezko izango da, diferentzia exijitzearren. Zatikatze hori ez dela egin joko da eraginen iraungitze daten artean hamabost egun baino gehiagoko aldea badago, edota igorpen mailakatuen bidez epeka kobratzea hitzartu bada agiri bidez.

**3.** Aurrean zehaztutako arauak, era berean, igorpen funtzioa duten edota kanbio letrak ordezkatzen dituzten dokumentuetan ere aplikatuko dira, artikulu honetako 2. idatz zatiko lehenengo paragrafoan jasotzen den salbuespenarekin.

**4.** Besteren kapitalen ordezkatzaile diren eta seriean jaulkitako ordainduko, bonu, obligazio eta antzeko tituluetan, jaulkipenean ordaindutako kopuruaren eta epea amaitzean ordaintzekoa den kopuruaren arteko diferentziak ezarritako ordaina asetzen badute, jaulkitzaileak ordaintzekoa den kapitalaren zenbatekoak osatuko du oinarria.

**<u>61. artikulua</u>.- Zerga kuota.**

**1.** Kanbio letrak beren zenbatekoari dagokion motako efektu tinbredunarekin luzatuko dira nahitaez. Zenbateko gutxiagoko efektu tinbredunaren letra luzatzeak legeek ematen dieten eraginkortasun exekutiboa kenduko die dokumentu horiei. Tributazioa honako eskala honen arabera egingo da:

| | | | **Euroak** | |
|---|---|---|---|---|
| Honaino | | | 24,04 | 0,06 |
| Hemendik: | 24,05 | honaino: | 48,08 | 0,12 |
| Hemendik | 48,09 | honaino: | 90,15 | 0,24 |
| Hemendik | 90,16 | honaino: | 180,30 | 0,48 |
| Hemendik | 180,31 | honaino: | 360,61 | 0,96 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Hemendik | 360,62 | honaino: | 751,27 | 1,98 |
| Hemendik | 751,28 | honaino: | 1.502,53 | 4,21 |
| Hemendik | 1.502,54 | honaino: | 3.005,06 | 8,41 |
| Hemendik | 3.005,07 | honaino: | 6.010,12 | 16,83 |
| Hemendik | 6.010,13 | honaino: | 12.020,24 | 33,66 |
| Hemendik | 12.020,25 | honaino: | 24.040,48 | 67,31 |
| Hemendik | 24.040,49 | honaino: | 48.080,97 | 134,63 |
| Hemendik | 48.080,98 | honaino: | 96.161,94 | 269,25 |
| Hemendik | 96.161,95 | honaino: | 192.323,87 | 538,51 |

192.323,87 eurotik gorako kopuruagatik, 0,018030 euro 6,01eko edo frakzio bakoitzeko. Betiere esku dirutan likidatuko da. Likidazioa epearen barruan ez aurkezteak legeek emandako indar exekutiboa galtzea dakar.

**2.** (37) Igorpen funtzioa duten edota kanbio letrak ordezten dituzten dokumentuek eta gordailu ziurtagiriek dirutan ordainduko dute zerga, aurreko idatz zatian aipatutako karga eskalaren arabera. Zerga ordaintzeko berariaz prestatutako eredua erabiliko da eta erregelamenduz adierazten den epean aurkeztuko da. Epe horretan aurkeztu ezik, dokumentu horiek galdu egingo dute araudiak ematen dien betearazpen indarra.

**3.** (37) Foru Aldundiak eskatu ahal izango du, merkataritza trafikoaren ezaugarriengatik edo mekanizazio prozesuarengatik hala komeni denean, merkataritza dokumentua erabat identifikatu ahal izateko neurri egokiak har daitezela eta dagokion ordainketa dirutan egin dadila.

**4.** Besteren kapitalen ordezkatzaile diren eta gehienez hemezortzi hilabeteko epean seriean jaulkitako ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta antzeko tituluak, jaulkipenean ordaindutako kopuruaren eta epea amaitzean ordaintzekoa den kopuruaren arteko aldeak ezarritako ordaina asetzen dutenak, 6,01eko edo frakzio bakoitzeko 0,018030 euro ordainduko dituzte. Esku dirutan likidatuko dira.

**62. artikulua.- (37) Efektu tinbredunak.**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko ditu efektu tinbredunen forma, estanpazioa, espeziea, ezaugarriak eta zenbakitzea, zuzeneko tinbrea lortzeko kasuak eta prozedura, efektu horiek trukatzeko baldintzak eta haiek baliogabetzeko modua.

**63. artikulua.- Zerga ordaintzearen ondorioak.**

**1.** Merkataritza dokumentuak igortzean Zerga ordaintzeak haietako klausula guztiak estaltzen ditu, kontzeptu horrengatik zergak ordaintzeari dagokionez.

**2.** Atzerrian igorri diren eta Espainian edonolako eragin juridiko edo ekonomikoa duten kanbio letrak haren lehenengo edukitzaileak itzuliko ditu eskudirutan.

## IV. KAPITULUA
## ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTUAK

**64. artikulua.- (32) Zerga gaia.**

Zerga gai dira:

**1.** Erregistro publikoetan egiteko luzatzen diren aurreneurrizko idatzoharrak, gaitzat eskubide edo interes baloragarri bat dutenean eta ofizioz agindu gabe eta aginte judizialaren edo administratiboak alderdi gisa esku hartu gabe gertatzen direnean.

**2.** Handitasunen eta noble-tituluen eskualdatzea eta birgaitzea.

**65. artikulua.- Zergaduna.**

Ondorengo hauek ordaintzera behartuta daude, zergadun gisa:

a) Idazpenetan, eskatzen dituen pertsona.

b) Handitasun eta noblezia tituluetan, haien onuradunak.

**66. artikulua.- Idazpenak. Zerga oinarria.**

**1.** Behin-behineko idazpenetan, bermatu, argitaratu edo hedatzen den eskubidearen edo interesaren balioa izango da oinarri.

**2.** Bahitura idazpenetako zerga oinarriak inola ere ezingo du gainditu bahitutako ondasunen benetako balioa, ez eta bahitura idazpena ekarri duen kopuruaren guztizko zenbatekoa ere.

**<u>67. artikulua</u>.- Handitasunak eta noblezia tituluak. Zerga kuota.**

**1.** Ondorengotza bidez nahiz lagapen bidez handitasunak eta noblezia tituluak birgaitzeak eta eskualdatzeak, bai eta atzerriko tituluak onartzeak ere, artikulu honetako 5. idatz zatian jasotako eskalan adierazitako eskubideak bete behar dituzte.

**2.** Eskualdatze zuzentzat hartuko dira arbasoen eta ondorengoen artean egiten direnak, edo anai-arreben artean egiten direnak handitasun titulua edo noblezia titulua aitak edo amak erabili duenean.

**3.** Zeharkako eskualdaketatzat hartuko dira aurreko idatz zatian zehazten ez diren pertsonen artean egiten direnak.

**4.** Handitasun tituluaren edo noblezia tituluaren jabe egitea eten den guztietan kargatuko da birgaitzea, sortzen den modua edozein delarik ere. Hala ere, kasu bakoitzean ezingo da subjektu pasiboaren eskubide bat baino gehiago likidatu. Titulu pontifizeak eta gainerako atzerriko tituluak erabiltzeko eskubideak erabiltzeagatik ordaindu beharreko zergak eskala beraren arabera ordainduko dira.

**5.** (12) Hona artikulu honetako aurreko idatz zatietan aipatutako eskala:

| | <u>Euroak</u> |
|---|---|
| a) Handitasun titulu bakoitzeko | |
| - Zuzeneko eskualdaketak | 2.349 |
| - Zeharkako eskualdaketak | 5.887 |
| - Atzerriko tituluak birgaitzea eta onartzea | 14.117 |
| b) Titulu gabeko handitasun bakoitzeko | |
| - Zuzeneko eskualdaketak | 1.679 |
| - Zeharkako eskualdaketak | 4.210 |
| - Atzerriko tituluak birgaitzea eta onartzea | 10.078 |
| c) Handitasun gabeko titulu bakoitzeko | |
| - Zuzeneko eskualdaketak | 671 |
| - Zeharkako eskualdaketak | 1.679 |
| - Atzerriko tituluak birgaitzea eta onartzea | 4.041 |

**<u>68. artikulua</u>.- Behin-behineko idazpenak. Zerga kuota.**

Erregistro publikoetan egiten diren behin-behineko idazpenek % 0,50eko karga tasarekin ordainduko dituzte zergak; eskudirutan likidatu behar da.

## IV. TITULUA
## XEDAPEN KOMUNAK

## I. KAPITULUA
## ZERGA ONURAK

**<u>69. artikulua</u>.- Zerga onurak.**

**Bat.** Foru arau honetako 1. artikuluko idatz zatian zehazten diren hiru karga modalitateei kasu bakoitzean aplikatzen zaizkien zerga onurak, aurkakorik zehaztu ezean, honakoak dira:

A) Salbuespen subjektiboa izango dute:

1. Estatuak eta lurralde- eta erakunde- administrazio publikoek eta haien mendeko onegintzako, kulturako, Gizarte Segurantzako, irakaskuntzako edota zientzia-helburuetarako establezimenduek.

2. (33) Aurrezki kutxak eta banku fundazioak, beren gizarte ekintzetarako egiten dituzten eskuraketei dagokienez.

3. (4) (44) (46) Irabazteko asmorik gabeko entitateak, Irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatzen direnak, foru arau honen 16. artikuluan ezartzen den zerga araubide bereziari heltzen diotenak, eta aipatutako foru arauaren 4. eta 5. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten irabazteko asmorik gabeko entitateak, mezenasgoari buruzko beste araudi bat aplikatzen zaienak.

4. Espainiako Gurtze Gorriak.

5. Gizarte kapital guztia lurraldeko administrazio publiko batek edo gehiagok parte-hartua duten merkataritza sozietateek, legeak hala agintzen duelako, lurralde administrazio horiek esleitua duten jarduera edo eskumenen bat egiten badute. Salbuespen hori ez zaie aplikatuko merkataritza sozietate horiek egindako sozietate eragiketei, eta Zergako araudi orokorra aplikatuko zaie.

6. Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 21eko 7/1992 Legean (Urezta daitezkeen Zonei, Eskualdeak Hobetzeko Planei eta Aldaketa Orokorrerako Planei buruzko alderdi batzuk arautzen dituena), aurreikusitako jarduerak garatzeko sortu diren

Ureztatzaileen Erkidegoak, edo helburutzat Lege horretan agertzen diren jarduerak garatzea helburu duten Ureztatzaileen Erkidegoak.

7. (11) Parlamentuan ordezkaritza duten alderdi politikoak.

B) Salbuetsiak:

1. Espainiako Estatuak sinatu eta berretsi dituen nazioarteko hitzarmenek, edota Espainiako Estatua batzen zaienek salbuespena ematen dieten eskualdatzeak eta gainerako egintza eta kontratuak.

2. (36) Legezko atzera egiteen ondorioz egiaztatzen diren eskualdatzeak, baldin hark aurkatutako eskuratzaileak jada zerga ordaindu badu. Ez daude salbuespen honen eremuan sartuta ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 83. artikuluan araututako foru saka eskubidea baliatzearen ondoriozko eskualdaketak. Kasu horretan, Foru Arau honen 41 bis artikuluan ezarritakoaren arabera ordainduko dute zerga.

3. (1) Ezkontideek ezkontza-sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan ezkontza sozietatea desegitean beraien alde egiten diren esleipenak, eta arrazoi horrengatik ezkontideei beren irabazizko ondasunen ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

   Xedapen berdina aplikatuko zaie, aurreko paragrafoan aipatzen diren kasu berberetan, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdaketei.

4. Ondasunen prezioa osatzen duten diru emateak edo zerbitzu pertsonalak, kredituak edo kalte ordainak ordaintzeko egiaztatzen direnak. Kreditu eta aurrezki erakundeek hipoteka maileguen eskriturak gauzatzean emandako zenbatekoen emate aktak, betiere, haien Zerga behar bezala likidatu bada, edota bidezko salbuespena aitortu bada.

5. Estatuak eta administrazio publikoek, lurraldekoek eta erakundeetakoek emandako interesik gabeko aurrerakinak.

6. Tutoreek, beren karguak gauzatzearen bermearekin, eskaintzen dituzten bermeei dagozkien egintzak.

7. Eskualdatzeak eta gainerako egintza eta kontratuak, baldin Zerga ordaintzeko erabilitako aurreko beste egintza batuen eraginkortasun eza konpontzea badute xede bakar, eta inexistentzia edo deuseztasuna dakarren akatsak eragiten badie.

8. Abenduaren 15eko 43/1998 Legean (1936-1939 aldiko erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuta, alderdi politikoei konfiskatutako ondasun eta

eskubideak lehengoratzeari eta haiek konpentsatzeari buruzkoa) ezarritako ondasun edukiko ondasun eta eskubideak lehengoratzea eta diru konpentsazioa.

9. (36) Lur zatien baterakuntzak eragiten dituen eskualdaketak eta gainerako egintza eta kontratuak, landa lurreko finken derrigorrezko trukaketenak, behar bezala baimendutako borondatezko trukaketak eta berrogei urtetik gorako errentamenduetan lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatzearen ondorio direnak (Euskal Zuzenbide Zibilean daude araututa), baldin eta onibarra eskuratu eta hurrengo sei urtean eskualdatzen ez bada.

   Lehengo Foru Arauko 5. artikuluan arautzen diren salbuespenak aplikatzea hartan zehaztutako eragiketen eskritura publikoa gauzatzeko beharrari lotzen zaio.

10. Finka landatarren eskualdatzeak, betiere, finka mugakide bateko jabeak, bateratzeko egin badu, 17/1997 Foru Arauko (ekainaren 9koa, nekazaritzari lotutako zerga neurriei buruzkoa) 4. artikuluan zehaztutako baldintzetan.

11. Pertsonei ematen zaizkien ureztatzeetarako ur emateak, baldin Eusko Jaurlaritzaren 7/1992 Legeak (abenduaren 21ekoa, zona ureztagarrien, hobetzeko eskualde planen eta eraldatzeko plan orokorren gaineko hainbat alderdi arautzen dituena) arautzen dituen jarduerak aurrera ateratzeko sortutako ureztatzaileen komunitateei edota lege horretan zehaztutakoei lotzen zaizkienei uzteko badira; betiere, ustiategia urtebeteko epean zehaztu den ureztatzaile komunitate bati doan lagako dietela aitortzen badute, eta epe horretan, Zerga Administrazioari lagapen hori egin izana ziurtatzen badiote eskritura publiko bidez eta Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko egiaztagiriarekin. Egiaztagiri horretan adierazi beharko da lagapen-hartzaile den komunitatea artikulu honetako Bat idatz zatiko A) letrako 6. idatz zatian zehazten den salbuespen subjektiboa eragiten duten jarduerei lotzen zaiela.

    Urtebete igarota ureztatzaileen komunitatea ez badago formalki eratua, doako lagapena gauzatzeko epea hilabetekoa izango da, arroko organismoak komunitatea onartzean duenetik aurrera. Era berean, onarpen hori gehienez hiru urtean egin behar da, salbuespena aplikatu zaion lagapena ematen denetik hasita.

    Epe horiek igarota, exijitzen den doako lagapena (lehenago zehaztu dena) ez bada gauzatu, Zerga Administrazioak dagokion behin-behineko likidazioa egingo du, Zerga ordaintzea exijitze aldera.

    Aurrekoa gorabehera, subjektu pasiboak ezingo du eskatu likidazio horren ondorioz egindako sarrerak itzultzea, baldin iraungitze epea amaitu aurretik, aprobetxamenduaren doako lagapena egiten bada, eta Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak justifikatzen badu lagapena ezin izan zela egin idatz zati honetan adierazitako epean, subjektu pasiboaren borondateaz bestelako arrazoiengatik.

12. (11) Egikaritze unitateetako jabeek itun batzetara egiten dituzten ekarpenengatik eta jabe horiei batzek ekarritako lurren proportzioan egiten dizkieten adjudikazioengatik egiten diren lur eskualdaketak.

Lurzatiketak eragiten dituen egintzak eta kontratuak, aurreko paragrafoan ezarri den bezala.

Aurreko kasu guztietan, jabe bati adjudikatutako lurren balioa berak ekarritako lurren proportziozko balioa baino gehiago bada, soberakinaren likidazioak egingo dira.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, hirigintzako legerian ezarritako betekizun guztiak bete behar dira.

13. (19) Orubeak eskualdatzea eta azalera eskubidea lagatzea babes ofizialeko etxeak eraikitzeko; babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko, eraikitzeko edo lehenengoz eskualdatzeko egilesten diren eskritura publikoak, egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari dagokionez; babes ofizialeko etxebizitzen lehenengo inter vivos eskualdaketa, baldin eta behin betiko kalifikaziorik sei urte pasatu baino lehen egiten bada; behin betiko kalifikazioa baino lehen eraikitzeko eskatzen diren maileguak, hipoteka maileguak zein bestelakoak; xede bakarra babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea edo eraikitzea duten sozietateak eratzea, bategitea, bereiztea, eta haien kapitala handitzea.

Orubeen eskualdatzearen eta azalera eskubidea lagatzearen gaineko mozkina ezagutzeko nahikoa izango da dokumentuan ondokoa agertzea: kontratua babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko helburuarekin ematen dela eta eraginik gabe geratuko dela ezagutzetik hasi eta hiru urtean aldi baterako kalifikaziorik lortzen ez badu.

Behin-behinean emango da salbuespena, baina horrelako etxebizitzetarako indarreko xedapenek exijitzen dituzten baldintzak bete beharko dira ezinbestean.

Salbuespena behin-behinean onartzeko kontuan hartutako betekizunetako bat betetzen ez bada edo salbuespena baliogabetzen bada, interesdunak hogeita hamar eguneko epealdia edukiko hori gertatzen denetik gertatutakoari buruzko aitorpena aurkezteko, eta horrek bidezko likidazioa eragingo du (berandutza korrituekin).

Aitorpena ez bada aurkezten, dokumentua ez aurkeztea bezalakoa izango da eta baliteke zehapena eskatzea.

Babes ofizialeko etxebizitzaren kontzeptuan etxebizitzak eta beraien eranskinak baizik ez dira sartzen.

14. (11) Administrazio publikoek beren eskumenak baliatuta babes publikoko etxebizitzak eskualdatzea.

Salbuespen hau ondoko kasuetan ere aplikatuko da: babes publikoko etxebizitzak eskuratu eta adjudikatzeko indarreko araudiaren itzalpean, norbanako batek babes publikoko etxebizitza eskualdatzen dionean Eusko Jaurlaritzak izendatutako beste norbanako bati.

15. (9) Sozietateen gaineko uztailaren 29ko 26/1988 Legearen zazpigarren xedapen iragankorrak aipatzen dituen finantza errentamenduko eragiketak egin ohi dituzten enpresen alde egiten diren eraikuntza eskualdaketak, eskualdatzailea ez den beste pertsona bati errentamenduan emateko, erosteko aukerarekin; eragiketa horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita baldin badaude.

Onura hau eduki ahal izateko, nahitaezko betebeharra izango da eskualdatzailearen eta eskuratzaile edo errentariaren artean zuzeneko edo zeharkako lotura harremanik ez egotea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 16. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren arabera.

16. (23) 1. Balioen eskualdatzea, bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzeko onartuak edo ez.

2. (25) Aurreko idatz zatian xedatutakotik salbuetsita egongo dira bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuak ez diren balioen eskualdatzeak, bigarren mailako merkatuetan egindako eskualdatzeak direnean, ondasun higiezinen kostu bidezko eskualdatze gisa ordainduko dutenak dena delako zerga, baldin eta balioen eskualdatze horien bitartez nahi izan bada balio horiek ordezkatzen dituzten erakundeenak diren higiezinen eskualdatzeari dagozkion tributuen ordainketa ekidin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, ondasun higiezinen eskualdaketari dagokion zerga ordaintzea ekidin nahi dela joko da hurrengo kasuetan, besterik frogatu ezean:

a) Aktiboaren ehuneko 50 gutxienez enpresa edo lanbide jarduerei atxikita ez dauden Espainiako higiezinez osaturik duen erakunde baten kontrola bereganatzen denean, edo kontrol hori bereganatu ondoren bertako partaidetza kuota gehitzen denean.

b) Erakunde baten kontrola bereganatzen denean baina hurrengo ezaugarriak dituen beste erakunde batean kontrola egiteko aukera ematen dioten balioak sartzen badira hasierako erakunde horren aktiboan: aktiboaren ehuneko 50 gutxienez enpresa edo lanbide jarduerei atxikita ez dauden Espainiako higiezinez osaturik duen erakundea, edo kontrol hori bereganatu ondoren bertako partaidetza kuota handitzen duena.

c) Eskualdatutako balioak sozietate bat eratzeagatik edo haren kapital soziala handitzeagatik egin diren ondasun higiezinen ekarpenen truke jaso direnean, baldin eta ondasun horiek enpresa edo lanbide jarduerei atxikita ez badaude eta ekarpen egunetik eskualdaketa egunera hiru urte pasatu ez badira.

3. Balioen eskualdatzea salbuespenik gabe aipatutako zergen pean geratzen den kasuetan, aurreko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera, honako arauak aplikatuko dira:

1. Aktiboaren kontaketa egiteko, kontabilizatutako ondasun guztien kontabilitateko balio garbien ordez haien balio errealak hartu behar dira kontuan, hain zuzen ere, eskualdaketa edo eskuraketa gertatu den egunean zehaztutakoak. Horretarako, subjektu pasiboak egun horretan dagoen aktiboaren inbentarioa egin behar du eta zerga administrazioari eman beharko dio, hark eskatuz gero.

2. Merkataritza sozietateei dagokienez, kontrola bereganatu dela joko da kapital sozialean ehuneko 50 baino gehiagoko partaidetza edukiz gero, zuzenean zein zeharka. Helburu horretarako, eskuratzailearen partaidetza gisa kontatuko dira sozietate talde bereko gainerako erakundeen balioak ere bai.

3. Higiezinen jabe den sozietateari berari balioak eskualdatzean, hark gerora amortizatu ditzan, zerga ondorioetarako ulertu egingo da aurreko idatz zatiko a) edo b) letretan aipatutako ekidite kasua gertatzen dela. Hala gertatzen bada, eragiketa horien ondorioz sozietatearen kontrola (lehenago azaldu bezala) bereganatu duen akzioduna izango da subjektu pasiboa.

4. Aurreko 2. idatz zatiarekin bat etorriz, balio erantsiaren gaineko zergaren pean dauden balioen eskualdatzeetan (salbuetsiak ez daudenak), higiezin gisa kontatu behar diren ondasunek duten merkatu balioaren proportzioan zehaztuko da zerga oinarria. Hori dela eta, 2. idatz zatiaren c) letran zehaztutako kasuetan, zerga oinarria bere garaian emandako higiezinen merkatu balioaren proportziozko zatia izango da, eskualdatutako akzio edo partaidetzei dagokiena, hain zuzen ere.

Aurreko 2. idatz zatian azaldutakoarekin bat etorriz, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kostu bidezko ondare eskualdatzeen modalitatean ordaindu behar duten balioen eskualdatzeen kasuan, kitapena egiteko, higiezinen balio errealaren proportziozko zatiari zerga horren elementuak aplikatuko zaizkio, balio hori arautegian jasotako arauen arabera kalkulatuko dela. Horretarako, zerga oinarria hauxe izango da:

- Aurreko 2. idatz zatiko a) letran aipatutako kasuetan, manu hau aplikatzeko ondorioetarako, higiezin gisa kontatu behar diren aktiboko partida guztien balio errealaren gaineko proportziozko zatia, eskuratzaileak kontrola bereganatzen duenean eskuratzen duen partaidetzaren ehuneko osoari dagokiona, edo, kontrola lehendik bereganatuta badauka, kostu bidez zein irabaziarekin lortuta, partaidetza kuotaren gehikuntza ehunekoari dagokiona.
- Aurreko 2. idatz zatiko b) letran aipatutako kasuetan, zerga oinarria zehazteko bakarrik kontuan hartuko dira higiezin hauek: aktiboaren ehuneko 50 gutxienez enpresa edo lanbide jarduerei atxikita ez dauden higiezinez osaturik duten erakundeenak.

- Aurreko 2. idatz zatiaren c) letran aipatutako kasuetan, zerga oinarria izango da bere garaian emandako higiezinen balio errealaren proportziozko zatia, eskualdatutako akzio edo partaidetzei dagokiena, hain zuzen ere.

17. Hipoteka merkatua arautzen duen araudi berezian ezarritako baldintzak betetzen dituzten hipoteka zedulak eta bonuak.

18. Motor mekanikodun ibilgailu erabilien eskualdatzeak, eskuratzailea halakoak salerosi ohi dituen enpresaburua bada, eta berriro saltzeko eskuratzen baditu.

    Salbuespena aldi baterako eman dela joko da, eta behin betiko bihurtzeko, eskuratutako ibilgailua eskuratu eta urtebetean saldu dela arrazoitu beharko da.

19. Eskudirutako gordailuak eta maileguak, edozein modutan gauzatu direla ere, ordainduko, bonu, obligazio eta antzeko tituluen bidez ordezkatuak barne. Gordailua edo mailegua edota ordainduko, bonu, obligazio eta serieko gainerako antzeko tituluen gaineko egintza juridiko dokumentatuen gaineko karga dokumentatzen duten tituluen geroko eskualdatzera hedatuko da salbuespena, hemezortzi hilabetez gehienez, jaulkipenean ordaindutako zenbatekoaren eta iraungitzean ordaintzekoa denaren arteko diferentzia ordaintzen duten besteren kapitalak ordezkatzen dituztenetara, industria edo negozio bankuek jaulkitako kutxa bonuek ordezkatutako maileguak barne.

20. (12) Egintza juridiko dokumentatuen mailaz mailako kargaren modalitatean, salbuetsita daude subrogazio eragiketak dokumentatzen dituzten eskritura publikoak, hipoteka maileguak subrogatzeari eta aldatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/1994 Legeak ezarritakoaren arabera eta bertan finkatutako betekizunei eta baldintzei lotuta.

    Halaber, egintza juridiko dokumentatuen modalitate berean, salbuetsita daude hartzekodunak eta zordunak, elkar hartuta, ituntzen dituzten hipoteka maileguen aldaketen eskritura publikoak, baldin eta hartzekoduna hipoteka maileguak subrogatzeari eta aldatzeari buruzko martxoaren 30eko 2/1994 Legeko 1. artikuluan aipatutako erakundeetako bat bada eta lege horretako 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritako baldintzetako bat aldatzen bada.

    Aurreko paragrafoan adierazitakoa aplikatzeko, berritze aldarazlea kapital zabalkuntza bati buruzkoa bada, zabalkuntza hori ezin izango da hasierako maileguaren printzipalaren 100eko 25a baino handiagoa izan. Kapital zabalkuntza ehuneko hori baino handiagoa bada, salbuespenaren muga hau izango da: hasierako maileguaren printzipalaren 100eko 25ari dagokion hipoteka erantzukizuna.

21. (30) (48) Foru arau honen 56. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen den egintza juridiko dokumentatuen mailaz mailako kargatik salbuetsita daude mailegu edo kreditu bat ordainduko delako berme gisa eratutako hipotekako eskubide errealen eraketa, aldaketa edo kitapena dokumentatzen duten notaritzako

eskrituren lehenengo kopiak, baldin eta maileguaren xedea Arabako lurraldean dagoen ohiko etxebizitza erostea edo birgaitzea bada. Ohiko etxebizitza terminoak ondokoak hartzen ditu: bi garaje plaza eta bi eranskin, gehienez, eraikin berekoak badira eta denak batera eskualdatzen badira. Hori dela eta, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat edo birgaitzetzat joko dira Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauak eta hura garatzen duten arauek zehazten dituzten kontzeptuen barruan sartzen direnak.

Mailegua edo kreditua etxebizitza eraikitzeko erabiltzen bada, eraikuntza lanak hipotekaren eskubide erreala eratzen denetik lau urte pasatu baino lehen amaitu behar dira.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko arautegian etxebizitza ohikotzat hartzeko ezarritako baldintzak edo eraikuntzarako mailegua edo kreditua salbuesteko baldintzak betetzen ez badira, subjektu pasiboak aitorpen egokia aurkeztu behar du ez-betetzea gertatzen denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen, eta horrek bidezko likidazioa eragingo du eta bertan behar diren berandutze interesak eskatuko dira.

Zenbaki honen lehen paragrafoan aipatzen den notariotzako eskrituran bertan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazi beharko da; nolanahi ere, horrek ez du eragotziko Zerga Administrazioak egiaztatzeko ahalmena erabiltzea.

22. Banka establezimenduetako, aurrezki kutxetako eta kreditu kooperatibetako gordailuen berme funtsek, Zergan, 4/1980 Errege Dekretuan (martxoaren 28koa) eta 18/1982 Erregeren Lege Dekretuan (irailaren 24koa) ezartzen den salbuespenaz gozatzen jarraituko dute, haien eraketaren, funtzionamenduaren eta haien xedeak betetzeko egiten dituzten egintza eta eragiketen ondorioz.

23. Kooperatibak, ekainaren 9ko Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko 16/1997 Foru Arauan ezarritakoa betez.

24. Abuztuaren 3ko 1.776/1981 Errege Dekretuan jasotzen diren helburuetarako sortu diren eraldaketako nekazaritza sozietateak, dagokien erregistroan izena emana dutenak, eratze eragiketei eta kapitala handitzeari dagokienez.

25. (21) Sozietateak eratzea, kapitala gehitzea, kapitala gehitzen ez duten bazkideen ekarpenak eta sozietatearen zuzendaritza egoitza edo sozietatearen egoitza Arabako Lurralde Historikora aldatzea, Europar Batasuneko estatu batean inoiz egon ez badira.

26. (19) Foru arau honetako 45. artikuluko 2. idatz zatiko 1., 2., 3. eta 5. zenbakietan eta, bidezkoa izanez gero, artikulu bereko 2. idatz zatian aipatzen direnak kostu bidezko ondare eskualdaketen modalitatean edo egintza juridiko dokumentatuen modalitatean.

27. Maiatzaren 26ko 18/1982 Legean (aldi baterako enpresen talde eta elkarteen eta eskualdeko industria garapenerako sozietateen zerga erregimenari buruzkoa) zehazten diren baldintzak betetzen dituzten aldi baterako enpresen elkarteek salbuespenaz gozatuko dute eratze, hedatze, murrizte, desegite eta likidazio eragiketetan, eta prestamen kontratuek eta gainerako dokumentuek, baldin haiek gauzatzeak, legez, eraketarako behar den aurrekontua osatzen badute.

28. Intereseko taldekatzeen eratze eragiketak, bazkideen ekarpenenak eta murriztearenak, desegitearenak eta likidatzearenak, eta prestamen kontratuak eta gainerako dokumentuak, baldin haiek gauzatzeak, legez, eraketarako behar den aurrekontua osatzen badute; eta betiere, maiatzaren 19ko 11/1992 Foru Arauan zehaztutako betebeharrak betetzen badira.

29. (33)

30. (7) Kapital-arriskuko erakundeak eratu eta kapitala zabaltzeko eragiketak, azaroaren 24ko 25/2005 Legeak, kapital-arriskuko erakundeei eta horien sozietate kudeatzaileei buruzkoak, jasotakoaren arabera.

31. Uztailaren 18ko 24/1988 Foru Arauan zehazten diren borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek salbuespenaz gozatuko dute foru arau honetako II. Tituluko I. Kapituluak eta III. Tituluko II. Kapituluan zehaztutako notaritzako dokumentuek zehazten dutenaren aldetik.

    (19) Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategina onartu duen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzazko Errege Dekretuak arautako pentsio funtsak eratzea, desegitea eta aldatzea (gehikuntza eta gutxikuntzak).

32. Balio higigarrien inbertsioko sozietate funtsek, balio higiezinen inbertsioko sozietate eta funtsek eta hipoteka titulazioko funtsek, zerga honetan, 3/1985 Foru Arauan (martxoaren 23koa, Balio Higigarrien Inbertsioko Sozietateei eta Inbertsio Funtsei buruzkoa) ezartzen diren zerga onurez gozatuko dute.

33. Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emandako elkarren bermerako sozietateen kapitala eratzea, gehitzea edo murriztea, eta haiek gauzatzeko beharrezko diren egintzak eta dokumentuak.

    Salbuespen bera aplikatuko zaio Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emandako elkarren bermerako sozietatearen eta bermea eman zaion sozietatearen arteko erlazio juridikoari, bai eta erlazio hori gauzatzen den dokumentuaren aldetik ere.

    Era berean, Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emandako elkarren bermerako sozietatearen alde edozein berme ematea Zergatik salbuetsiko da, aurreko paragrafoan xedatzen den erlazio juridikoaren baldintzetan; salbuetsita geratuko dira, bestalde, halakoak gauzatzen diren dokumentuak.

Aurreko paragrafoetan zehazten diren salbuespenetan, haietan zehazten diren bermeak ezeztatzea ere barne hartzen da.

34. Berfinkatze sozietateek aurreko paragrafoan elkarren bermerako sozietateetarako ezarri diren onura berak izango dituzte, martxoaren 11ko 1/1994 Legeko 11. artikuluari jarraikiz, haien sozietate xedea osatu behar dutenen aldetik.

35. Administrazioek eta erakunde publikoek, merkataritza sozietateen sozietate kapitaleko partaidetza adierazten duten akzioak besterentzeko, sortzen dituzten sozietateen eratze eta kapitala hedatzeko eragiketak.

36. (17) Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araupetutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen eraketa eragiketak eta kapitala handitzeko eragiketak, eta erakunde horietara egiten diren diruz bestelako ekarpenak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita daude sozietate eragiketen modalitatean.

    Aurretik aipatutako legeak arautzen dituen finantza izaerako inbertsio funtsak salbuetsita daude Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik, aurreko paragrafoan zehaztutako irismen berarekin.

    Aurreko bi paragrafoetan ezarritako zerga ordainketako araubidean egongo dira azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautuko talde inbertsioko erakundeak, finantza izaera ez dutenak, baldin eta sozietatearen helburu bakarra edozein motatako hiri ondasun higiezinak eskuratzea eta sustatzea bada (lurrak erostea barne) gero errentan emateko.

    Halaber, erakunde horiek Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute alokatzeko diren etxebizitzak eskuratzean eta alokatzeko diren etxebizitzak sustatzeko lurrak eskuratzean, baldin eta, bi kasu horietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 29.5. artikuluko c) eta d) letretan higiezinak mantentzeari buruz ezartzen diren betekizun bereziak betetzen badituzte, ondoko salbuespen honekin: aparteko izaeraz, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimen espresua ematea.

    (31) Hipoteka tituluen funtsak, finantza aktiboen tituluen funtsak eta arrisku kapitaleko funtsak salbuetsita daude sozietate eragiketen modalitatearen kargapeko eragiketa guztietan.

37. (32) Subjektu pasiboa zorduna denean, uztailaren 9ko 22/2003 Legean, konkurtsoarenean, arautako berriro finantzatzeko akordioetan eta auzibideaz bestelako akordioetan jasotako maileguen, kredituen eta zordunaren beste betekizun batzuen kitak edo murrizketak jasotzen dituzten eskriturak.

38. (32) Sozietateen gaineko zergaren Araudian ezarritako higiezinen errentamenduko jarduera kualifikatua duten entitateen zerga araubide bereziari

lotutako sozietateek erositako etxebizitzen eskualdaketa, baldin eta errentamendu ondorio diren errentei aplikatzen bazaie zerga oinarrian errentak ez sartzeko araubidea, zerga araubide horretan bertan xedatua.

39. (32) (48) 'Bizigune' etxebizitza hutsen programari lotutako etxebizitzen errentamendua, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuan arautua, edo ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) etxebizitza libreen alokairuaren merkatuko bitartekaritza, Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuan arautua, bai eta antzeko foru edo udal plan edo programa batzuk ere.

    Era berean, salbuetsita egongo dira zerga oinarrian errentak ez sartzeko araubidearen mendeko errentamenduak, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 115. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, higiezinen errentamenduko jarduera kualifikatua duten entitateen zerga araubide berezian ezarritakoak, baldin eta horiek helburu badituzte sozietateek etxebizitzakalokatzeko eragiketak. Horretarako, azaroaren 24ko 29/1994 Legearen, hiri errentamenduenaren, 2. artikuluan ezarritakoa baino ez da izango etxebizitza errentamendu.

40. (11) Alderantzizko hipotekak eratzeko, subrogatzeko, aldatuta berritzeko eta kitatzeko egiten diren eskritura publikoak, 2007ko abenduaren 7ko 41/07 Legeak notario agirien gaineko egintza juridiko dokumentatuen modalitateko mailaz mailako kargari buruz ezarritakoarekin bat etorriz. Lege honek Hipoteken Merkatuari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta sistema hipotekario eta finantzarioari buruzko beste arau batzuk aldatu ditu, alderantzizko hipotekak eta menpekotasun asegurua arautu ditu eta zergen arloko arau batzuk ezarri ditu.

41. (11) Pertsona ezinduen ondare babestura egindako ekarpenak dokumentatzen dituzten eskritura publikoak. Ondare horiek pertsona ezinduen ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta horren inguruko zerga arautegia aldatu dituen azaroaren 18ko 41/2003 Legean arautu dira.

42. (19) Etxebizitzen lehenengo eskualdaketak dokumentatzeko egiten diren notario eskrituren lehenengo kopiak salbuetsita daude foru arau honetako 56. artikuluko 2. idatz zatian aipatutako notario agirien gaineko kargatik.

    Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitza terminoak ondokoak hartzen ditu: bi garaje plaza eta bi eranskin, gehienez, eraikin berekoak badira eta denak batera eskualdatzen badira. Hori dela eta, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

43. (17) Higikorren Merkatuko Inbertsiorako Sozietate Anonimo Kotizatuak arautzen dituen urriaren 26ko 11/2009 Legeak araututako higikorren merkatuko inbertsiorako sozietate anonimoen eraketa eragiketak eta kapitala handitzeko eragiketak, baita erakunde horietara egiten diren diruz bestelako ekarpenak ere,

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira sozietate eragiketen modalitatean.

Halaber, Zerga horretako kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute errentan emateko diren etxebizitzak eskuratzean eta errentan emateko diren etxebizitzak sustatzeko lurrak eskuratzean, baldin eta, kasu batean zein bestean, 11/2009 Legearen 3. artikuluko 3. idatz zatian ezarritako mantentze betekizun berezia betetzen badute.

44. (18) Maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letran xedatutako baldintzekin, babeseko erakunde sistema bat eratzen duten kreditu erakundeak salbuetsita daude sozietatea eratzeagatiko kargatik, bai eta elkartutako erakundeek harpidetzen bidez zein zuzenean egindako sozietatearen kapitalaren gehikuntzengatik eta ekarpenengatik jasaten den kargatik ere, baina horretarako ezinbestekoa da salbuespena ezarrita egotea babeseko erakunde sistemari atxikitzeko kontratu akordioan eta, hala denean, Ondare Eskualdaketen eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren sozietate eragiketen modalitatean, integratzeko planean. Eragiketa horiek formalizatzeko behar diren egintzak eta dokumentuak ere salbuetsita daude.

    Era berean, sozietate eragiketen modalitatetik salbuetsita egongo dira bankuak berregituratzeari eta kreditu erakundeen baliabide propioak indartzeari buruzko uztailaren 26ko 9/2009 Errege Lege Dekretuko 7. artikuluan aipatutako Bankuen Berregituraketa Ordenatua egiteko Funtsaren esku-hartzearekin egindako berregituraketa prozesuen ondorioz burututako eragiketak.

    (19) Halaber, Ondare Eskualdaketen eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kargatik salbuetsita daude babeseko erakunde sistemako kideek kaudimen, likidezia eta bateratzeko elkarrekiko konpromisoak (maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatz zatiko d) letran aipatzen direnak) ezartzeko egiten dituzten kontratu akordioak, bai eta haiek formalizatzeko prestatzen diren agiriak ere.

45. (19) Sozietate eragiketen modalitateko kargatik salbuetsita daude lehentasuneko partaidetzak emateko eragiketak, maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko bigarren xedapen gehigarriko 1. eta 4. idatz zatietan ezarritako guztia betez gero.

46. (26) Abenduaren 4ko 13/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, Finantza sektoreko higiezin-aktiboak saneatu eta saltzeari buruzko eta kreditu erakundeak berregituratu eta desegiteari buruzko zerga araudia egokitzen duenak, 3. artikuluan onartzen dituen zerga onurak.

47. (28) (47) Zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien gaineko kuota gradualetik salbuesten dira hipoteka maileguak eta kredituak berritzeko egiten diren eskriturak, baldin eta hauen babesean egiten badira: Baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuaren babesean eta

azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege-Dekretuaren bidez sartu zen Jardunbide Egokien Kode Berriaren babesean (19/2022 Errege Lege Dekretua, azaroaren 22koa, Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka maileguen interes tasen igoera arintzeko Jardunbide Egokien Kode bat ezartzen duena, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretua aldatzen duena eta hipoteka maileguen merkatua hobetzeko beste egiturazko neurri batzukhartzen dituena).

48. (36) Baserriaren eta haren jabegoen jabari osoaren edo bizi arteko gozamenaren kostu bidezko eskualdaketak ahaide tronkalen alde, baldin eta finka nekazaritza edo abeltzaintza ustiapen baterako erabiltzen bada eta eskualdatzaileak modu pertsonalean aurrera eramaten badu.

    Salbuespena aplikatuko bada, eskuratzaileak aurreko paragrafoan zehaztutako jarduerak eraman beharko ditu aurrera modu eraginkorrean, zuzenean, pertsonalean eta lehentasunez, betiere baserria eta haren jabegoak eskuratu eta hurrengo sei urteetan.

    Pertsona bat batez ere nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustiapenean ari dela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoreetarako ekonomi jardueren edo lan pertsonalaren etekin gehienak zeregin horrexetan eskuratzen dituenean.

49. (38) COVID-19 gaixotasunaren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurriak onetsi zituen martxoaren 17ko 8/2020 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren babespean hipoteka maileguak eta kredituak berritzeko egiten diren eskriturak salbuetsita egongo dira zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien gaineko kuota gradualetik.

50. (39) 50. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak (COVID-19aren ekonomia eta gizarte eraginari aurre egiteko aparteko presako neurriena) 13.3 artikuluan eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuak, zeinaren bidez gizarte eta ekonomia eremuetako presako neurri osagarriak hartzen baitira COVID-19ari aurre egiteko, 24.2 artikuluan ezarritako moratoriak formalizatzeko agiriak, eta COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz hartutako esparru-erabaki sektorialen babespean emandako eta maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-dekretuaren 7. artikuluan ezarritako ohiko moratorienak.

51. (40) (41) Hipoteka mailegu eta kredituen eta hipoteka bermerik gabeko errentamendu, mailegu, leasing eta rentingen moratoriak formalizatzeko eskriturak, baldin eta egiten baldin badira ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.etik 9.era arteko artikuluetan turismo sektorerako arautzen den hipoteka moratoriaren aplikazioz, eta COVID-19ak garraio eta etxebizitza arloetan duen eraginari aurre egiteko ekonomia suspertzeko neurriei buruzko, uztailaren 7ko, 26/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 18.enetik 23.enera

arteko artikuluetan salgaien garraio publikoaren sektorerako eta bidaiarien autobus garraio diskrezionalerako moratoriaren aplikazioz.

52. (45) 1. Azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuan (horren bidez Europar Batasunak zenbait gairi buruz eman dituen zuzentarauen transposizioa egin da: bermatutako bonoak, inbertsio kolektiboko entitateen mugaz gaindiko banaketa, datu irekiak eta informazioa berrerabiltzea sektore publikoan, egile eskubideak eta lineako transmisio batzuei eta irratiko eta telebistako saioen emanaldiei aplikatu ahal zaizkien horren antzeko eskubideak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen, kontsumitzaileen eta errepideko garraioko ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen aldi baterako salbuespenak) arautzen diren bermatutako bonoak eta hipoteka partaidetzak eta hipotekaren eskualdaketaren ziurtagiriak jaulkitzea, eskualdatzea, amortizatzea eta ordaintzea.

    2. Azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuak (horren bidez Europar Batasunak zenbait gairi buruz eman dituen zuzentarauen transposizioa egin da: bermatutako bonoak, inbertsio kolektiboko entitateen mugaz gaindiko banaketa, datu irekiak eta informazioa berrerabiltzea sektore publikoan, egile eskubideak eta lineako transmisio batzuei eta irratiko eta telebistako saioen emanaldiei aplikatu ahal zaizkien horren antzeko eskubideak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen, kontsumitzaileen eta errepideko garraioko ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen aldi baterako salbuespenak) 14. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, konkurtsoan dauden entitateen ondare bereizia eratzeko aktiboak eskualdatzea eta mailegua beste kreditu entitate batera eskualdatzea jaulkipenak batera finantzatzeko.

53. (46) (48) Edozein tituluren bidez ondasunak edo eskubideak eskualdatzea, kalteordainak ordaintzeko, judizialki aitortutako zenbatekoan, seme-alaben eta adingabeen mesedetan edo tutoretza, zaintza eta babespea duten pertsona desgaituen mesedetan, baldin eta eskualdaketa horiek emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeek egiten badituzte, legeak edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnek zehazten duten moduan.

**Bi.** Zerga onurak inola ere ez zaizkie aplikatuko kanbio letrei, haiek ordezkatzen dituzten dokumentuei edota igorpen funtzioak egiten dituztenei, eskriturei, aktei edota notaritzako testigantzei, baldin Foru Arau honetako 56. Artikuluko 1. idatz zatiak kargatzen baditu.

**70. artikulua.- Kuotaren hobariak.**

**1**. (33) Urriaren 14ko 44/2015 Legearen arabera lan sozietatetzatjotzen direnek ehuneko 99ko hobaria izango dute lan sozietateko langile bazkide gehienen jatorri den enpresarenak diren ondasun eta eskubideak Zuzenbidean onartutako edozein bitartekoren bidez kostubidezko ondare eskualdaketen modalitatean eskuratzetik sortuko diren kuotetan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.

Aurreko paragrafoan aipatutako legean ezarritakoarekin bat etorriz, lan sozietateei lan izaera kentzeak berekin ekarriko du lan sozietate izatearen ondorioz izandako zerga mozkinak galtzea eta itzuli beharra, sozietateari lan izaera kentzea ekarri dion inguruabarra sortzen den unetik aurrera, eta dagozkion berandutze interesak izango ditu.

**2.** Ondare Eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan % 95eko hobaria izango dute balio higiezinen inbertsioko sozietateek eta funtsek, betiere alokatzeko etxebizitzak eskuratzen badituzte, eta Balio Higigarrien Inbertsioko Sozietateei eta Inbertsio Funtsei buruzko martxoaren 23ko 3/ 1985 Foru Araua betetzen badute.

**3.** (34) Hala dagokion kasuetan, Foru Arau honen 69. atalaren B) letraren 39. zenbakian jasotako salbuespena aplikatzearen kaltetan joan gabe, zerga honetan ehuneko 95eko hobaria izango du etxebizitza-errentamendua eratzeak. Horretarako, etxebizitza-errentamendutzat joko da soil-soilik Hiri Errentamenduen 29/1994 Legearen 2. artikuluan definitutakoa.

Hobari hori aplikatzeko beharrezkoa izango da etxebizitza-errentamenduari dagokion urteko errenta, errentariak ordaindu beharreko kontzeptu guztiak barne, 10.800 eurotik gorakoa ez izatea. Betekizun hori ez da eskatuko errentaria familia ugariko titularra denean.

Etxebizitza-errentamendua, errentariak ordaindu beharreko kontzeptu guztiak barne, 10.800 eurotik gorakoa denean, atal honek ezarritako hobaria zenbateko horretaraino ordainduko da.

## II. KAPITULUA
## BALIOAK EGIAZTATZEA

**71. artikulua.- Balioak egiaztatzea.**

**1.** Foru arau honetako balioztatze arauak egiaztatzeaz gain, eskualdatutako ondareen eta eskubideen benetako balioa egiaztatu ahal izango du Administrazioak, bai eta, hala badagokio, sozietatearen eragiketa edo egintza juridiko dokumentatua egiaztatu ere.

**2.** (5) Egiaztapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan ezarritako baliabideak erabiliz egingo da:

a) Lurrei Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren ondoreetarako esleitutako balioak.

b) Kasuan kasuko eskuraketaren xede diren ondasunek azken aldiz besterendu zirenean izan zuten salmenta-prezioa, edo inguru nahiz barruti bereko beste ondasun batzuek, izaeraz eta egoeraz aurrekoen antzekoek, azken aldiz besterendu zirenean izan zuten salmenta-prezioa.

c) Aseguru-kontratuetan ondasunei esleitutako kapitala.

d) Hipoteka duten finkak eskuratzen direnean, hipotekaren ondoreetarako adierazitako balioa, hau da, maileguaren printzipala, salbu eta interesdunak frogatzen duenean printzipala ez dela oso-osorik erabili ondasuna edo eskubidea eskuratzeko.

e) Administrazioak bere esku dituen balantze, datu eta balioespenak, baldin eta zergadunak beste zerga batzuen ondoreetarako onartu baditu. Betiere, Likidazio Bulegoak ahalmena izango du aktiboaren osagaiak biderik egokienetatik egiaztatzeko.

**3.** Balioak egiaztatu eta gero, interesdunek aitortutakoak baino balio handiagoak lortzen badira, interesdunek inpugnatu egin ditzakete, balio berriak kontuan hartu behar dituzten likidazioen erreklamazioetarako epeetan. Balio berriek eskualdatzaileen zergetan eragina izan badezakete, eskualdatzaileei bereiz jakinaraziko zaie, berraztertzeko inpugnazioa edo ekonomia eta administrazio bideko inpugnazioa jar dezaten, edo perituen tasazio kontraesankorra eska dezaten. Eta, erreklamazioa edo zuzenketa osorik nahiz zati batean onartzen bada, emandako ebazpenak Ondare Eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergako subjektu pasiboei ere onura ekarriko die.

**4.** Nolanahi ere, interesatuek aitortutako balioak lehentasuna izango du, baldin egiaztatzetik lortutakoa baino handiagoa bada.

**5.** (27)

**6.** (3) Ondasun eta eskubide eskualdatuen lehiaketako epaileak ebazpenetan ezarritako balioa balio erreala dela joko da. Ondorioz, lehiaketa prozeduretan gauzatzen diren ondasun eta eskubideen eskualdatzeetan (epai bidez onartutako hitzarmenetan zehaztutako kreditu lagapenak eta likidazio aldian gauzatutako aktiboen besterentzeak barne), ez da bidezkoa izango balioak egiaztatzea.

**72. artikulua.- (11) Perituaren tasazio kontrajarria.**

**1.** Balioak egiaztatzean ateratako emaitza zuzentzeko, interesdunek peritu tasazio kontrajarria eskatu ahal izango dute. Eskaera Administrazioak egiaztatutako balioa oinarritzat hartuta egindako likidazioaren aurka edo, bestela, foru arau honetako 71. artikuluko 3, idatz zatian xedatutakoaren ondorioz eskuratzaileek eskatzen badute tasazioa, balioen egiaztapenaren aurka bidezkoa den lehenengo errekurtsoaren edo erreklamazioaren epealdian aurkeztu behar da.

Interesdunak uste badu jakinarazpenean ez direla zehazten behar bezala aitortutako balioak aldatzeko kontuan eduki diren datuak eta arrazoiak, eta hori salatzen badu

berraztertzeko errekurtsoan edo erreklamazio ekonomiko-administratiboan, peritu tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidea beretzat gordeta, aurreko paragrafoan aipatutako epealdia errekurtsoa edo erreklamazioa ebazten duen erabakia administrazio bidean irmo bihurtzen den egunetik aurrera zenbatuko da.

**2.** Perituak ez badatoz bat ondasun edo eskubideen balioari buruz eta Administrazioko perituak egindako tasazioaren eta interesdunak egindakoaren artean ez badago % 10etik gorako aldea eta perituarena ez bada interesduna baino 120.202,42 euro altuagoa, interesdunaren tasazioa hartuko da likidazioaren oinarritzat. Administrazioko perituak egindako tasazioak aurrean adierazitako mugaren gainetik gainditzen badu interesdunak egindakoa, Likidazio Bulegoak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera jardungo du. Hirugarren perituak egindako balioespenari ezin izango zaio inolako errekurtsorik jarri.

**73. artikulua.- (11) Likidazioak egitea.**

Perituaren tasazio kontrajarria aurkezten bada edo zergapekoak, aurreko artikuluko 1. idatz zatian adierazi bezala, beretzat gordetzen badu hura sustatzeko eskubidea, egindako likidazioen emaitzaren sarrera eta haien kontra erreklamazioa aurkezteko epealdia etengo dira.

## III. KAPITULUA
## SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

**74. artikulua.- Sortzapena.**

**1.** Zerga sortuko da:

a) Ondare eskualdaketetan, zergapetutako egintza edo kontratua egiten denean.

b) Sozietate eragiketetan eta egintza juridiko dokumentatuetan, egintza kargapetua gauzatzen denean.

**2.** Ondasunak eskuratzea baldintzaren, terminoen, fideikomisoren edo beste mugaren bat gertatzearen menpe badago, ondasunak muga horiek desagertzen diren egunean eskuratzen direla ulertuko da, eta ondasunen balioa nahiz tasa aplikagarriak zehazteko ere data hori hartuko da kontuan.

**75. artikulua.- Preskripzioa.**

**1.** (5) Preskripzioa, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa salbu, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 65. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

**2.** Preskripzioaren ondorioetarako, likidatzeko aurkeztu behar diren dokumentuetan pribatuen data aurkezpenaren data dela adieraziko da, betiere aldez aurretik Kode Zibileko 1.227 artikuluan jasotzen den egoeraren bat gertatzen ez bada. Hori gertatuz gero, sartzearen, inskribatzearen, hiltzearen edo ematearen data zenbatuko da hurrenez hurren. Ondorio horietarako, dokumentuetan azaltzen ez diren kontratuetan, interesatuek foru arau honetako 76. artikuluan jasotakoa betetzen duten eguna dela ezarriko da.

**3.** Atzerriko funtzionarioek onartutako eskriturak baldin badira, Espainiako edozein administraziotan aurkezten den egunetik aurrera hasiko da preskribitzeko epea, Espainiak sinatutako nazioarteko itun edo hitzarmenen batean epe hori hasteko beste data bat ezarri ezik.

## IV. KAPITULUA
## FORMA BETEBEHARRAK

**76. artikulua.- (37) Autolikidazioa eta dokumentuen aurkezpena.**

**1.** Subjektu pasiboen betebeharra izango da zerga honen autolikidazioa aurkeztea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez adierazten dituen lekuan eta moduan.

Hala ezartzen den kasuetan, bide telematikoak erabili beharko dira autolikidazioa aurkezteko, horretarako zehazten diren prozedura eta baldintzak betez.

Halaber, foru arau honetan jasotako zerga egitateen gaineko dokumentuak aurkeztu beharko dira, bide telematikotik edo paperean, nola aurkezten den autolikidazioa. Horrez gainera, eskualdatutako ondasunen eta eskubideen edo sozietate-eragiketaren edo egintza juridiko dokumentatuaren balio erreala ere agerrarazi beharko da.

**2.** Autolikidazio hori erregelamenduz ezarritako epeetan aurkeztu beharko da.

**3.** Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko da zerga honen kargapeko zerga egitateengatik, dokumentu berean jasorik badaude eta aipatutako zergaren autolikidazioa egin behar bada haiengatik.

**4.** Salbuespen edo murrizketaren bat onartzeko aintzat hartu zitzaizkien baldintzak betetzeari uzten badiete, subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu beharko dute aurreko 2. idatz zatian ezarritako epe berean, ez-betetzea gertatzen den egunetik aurrera zenbatuta.

**5.** Autolikidazioa eta dokumentua aurkezten dituena, aurkezteagatik bakarrik, Zerga ordaintzera behartuta daudenen mandataria izango da. Horrela, aurkeztu duen autolikidazioarekin edo dokumentuarekin lotuta egiten zaizkion jakinarazpen guztiek, edota sinatzen dituen eginbideek, interesdunek eurek egin izan balituzte bezalako balio eta ondorio berak izango dituzte.

**6.** Higiezinen eskualdaketetan, zergadun ez-egoiliarrek zerga egoitza beren ordezkarien helbidean izango dute, Zerga dela eta zerga betebeharrak betetzearen ondorioetarako. Izan ere, ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 10. artikuluan xedatzen duenaren arabera, ordezkari bat izendatu beharko dute. Ordezkaria izendatzen denean, Zerga Administrazioari horren berri eman beharko zaio, higiezina eskuratzen denetik bi hilabeteko epean.

Ordezkaririk izendatzen ez denean, edo izendapen horren berri emateko betebeharra betetzen ez denean, eskualdatzen den higiezina hartuko da zergadun ez-egoiliarraren zerga egoitzatzat.

**77. artikulua.- (12) (37) Epaiak eta aurkibideak bidaltzea.**

**1.** Organo judizialek mota guztietako ondasunak edo eskubideak (ondasunen edo zerbitzu pertsonalen, kredituen edo kalte ordainen prezio diren eskudirutako kopuruak izan ezik) eskualdatzea edo adjudikatzea xede duten betearazpeneko epaien edo epai irmo direnen hileko zerrenda bidaliko diote Arabako Foru Aldundiari.

**2.** Notarioek, hiruhileko bakoitzaren lehenengo hamabostaldian, Arabako Foru Aldundiari aurreko hiruhileko naturalean eskuetsi dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea bidali beharko diote, azken borondateari, seme-alaben onarpenari eta Foru Aldundiak zehaztutako beste edozeri loturikoak izan ezik. Halaber, sinadurak ezagutzeko edo legeztatzeko aurkeztu zaizkien zerga ordainketari lotutako kontratuak jasotzen dituzten agiri pribatuen zerrenda bidali beharko dute, epe berberaren barruan. Era berean, zergari lotutako agirietan honako hauek jaso beharko dira, lege oharren artean eta espresuki: interesdunek zein epetan aurkeztu behar duten agiri horien autolikidazioa, zein ondasunengatik ordaindu behar den eskualdaketen gaineko zerga, eta, aurkeztu ezean, zein erantzukizun egokituko zaien.

**3.** Artikulu honetan jasotakoaz gain, kontuan hartu behar da guztion kolaborazioko betebeharra, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoa.

**78. artikulua.- (37) Autolikidazioen aurkezpenaren kontrola.**

**1.** Baldin eta, notarioek eskuetsitako dokumentu guztien aurkibidetik edo beste iturri batzuetatik ateratako informazioaren arabera, Zerga Administrazioak susmatzen badu

zergapekoren batek ez duela zerga egitateren baten autolikidaziorik egin, Zerga Administrazioak notarioarengana joko du eta eskuetsi duen dokumentuaren kopia elektronikoa eskatuko dio. Notarioak hamabost egun balioduneko epean eman beharko du eskatutako dokumentazioa.

**2.** Jarduketa horien bitartez egiaztatzen bada zerga egitateren bat aitortu gabe utzi dela, Zerga Administrazioak errekerimendua egingo dio zergapekoari, hilabeteko epean autolikidazioa aurkez dezan.

**3.** Zergapekoak autolikidazioa aurkezten ez badu, edo aurkeztu beharrik ez duela justifikatzen ez badu, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio egokiak egin ahal izango ditu, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz. Horrelako kasuetan, behin-behineko likidazioan aitortutako baliotzat hartuko da notario agirian jasota dagoena. Hala ere, balio hori eskualdatutako ondasunaren edo eratu nahiz lagatako eskubidearen balio erreala baino txikiagoa bada, balio erreala hartuko da.

**4.** Eskatutako likidazioa bidegabeki beste administrazio batean aurkeztu eta sartu bada, zerga zorraren sarrera eten egingo da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 68.8 artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

**79. artikulua.- (37) Ordaindu izanaren egiaztapena.**

Epaitegiek, bankuek eta gainerako finantza erakundeek, elkarteek, sozietateek, funtzionarioek, partikularrek eta edozein erakunde publiko nahiz pribatuk ez diote ondasunik emango titularra ez den beste inori, baldin aldez aurretik Zerga ordaindu izana, salbuetsita egotea edo atxikita ez egotea egiaztatzen ez bada, Administrazioak hala baimentzen duenean izan ezik.

**80. artikulua.- (37) Dokumentuen onarpena eta erregistro itxiera.**

**1.** Zerga honen kargapeko egintzak edo kontratuak jasotzen dituzten agiriak ez dira onartuko bulego eta erregistro publikoetan, eta ez dute inolako ondoriorik sortuko, baldin eta aurretik ez bada frogatzen zerga zorra ordaindu zaiola zerga administrazio eskudunari edo egintza edo kontratua ez dagoela zergapean edo kargatik salbuetsita dagoela (edo ez dagoela agiria halakoetan aurkeztu beharrik). Administrazio interesdunari berehala jakinaraziko zaizkio gorabeherak.

Auzitegiek eta epaitegiek Zerga likidatzeko eskumena daukan zerga administrazioari haren aurrean likidaziora aurkeztu izanaren oharrik ez duten dokumentuen kopia baimenduak igorriko dizkiote, egintzaren berri dutenetik hilabete pasatu baino lehen.

Idatz zati honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Zerga ordaindutzat joko da agiriarekin batera zergaren ordainketa, salbuespena edo kargarik eza jasotzen duen Zergaren autolikidazioa aurkezten bada.

Zergaren autolikidazioa bide telematikotik aurkeztu bada, idatz zati honetako lehenengo paragrafoan aipatutako ordainketa, salbuespena edo kargarik eza autolikidazioaren kopiaren bitartez frogatuko da. Agiri horretan zigilu elektroniko bat jasoko da, Arabako Foru Aldundiko sistema informatikoek editatua, zeinak egindako aurkezpena frogatuko baitu, bai eta aurkezpenaren eginbide ziurtatua ere, berariaz onartzen den foru aginduan zehazten denaren arabera.

Betiere, zigilu elektroniko eta eginbide horien egiazkotasuna eta baliozkotasuna egiaztatu ahal izango dira, organo emailearen artxiboetan sartuz bide telematikoetatik.

**2.** Erregistratzaileak eskualdatutako ondasuna edo eskubidea likidazioaren edo likidazio osagarriaren ordainketari atxikita dagoela agertaraziko du bazterreko oharra eginez

Bazterreko oharra ofizioz egingo da. Egindako likidazioaren ordainketa gutuna aurkezten denean ondorerik gabe geldituko da eta indargabetu egin beharko da. Gauza bera gertatuko da preskripzio epea pasatutakoan.

Ohar horretan nahitaez jarri beharko da autolikidazioarengatik ordaindutakoaren zenbatekoa, salbu eta salbuespena edo kargarik eza alegatzen denean.

**3.** Ez da beharrezkoa izango zerga administrazioan ondoko hauek aurkeztea:

a) Efektu publikoen, akzioen, obligazioen eta mota guztietako balore negoziagarrien eskualdaketa formalizatzeko agiriak, notarioek eta baloreen sozietate eta agentziek kontu hartuta.

b) Erregistro publikoetan prebentziozko idatzoharrak egiteko agindua dakarten dokumentuak, Estatuak edo lurralde nahiz erakunde administrazio publikoek eskatzen dutenean idatzohar horiek egiteko.

c) Xedetzat kopurua edo gauza balioztagarria ez duten notario eskritura eta akten kopiak eta mota guztietako notario lekukotzak, zergapeko egintzak agerrarazten dituzten agiriak izan ezik, agiriotan ordainketa, salbuespen edo lotura gabetasunaren oharra ageri ez bada.

d) 192.323,87 eurotik gorakoak ez diren kanbio letrak eta protesto aktak.

e) Arabako Foru Aldundiak zerga efektu tinbredunen bidez ordaindu beharra ezarria duen egintza eta kontratuei buruzko agiri guztiak, bai eta aipatutako foru aldundiak zehazten dituenak ere.

**4.** Zergagatik zorpeko geratu direnen eraginkortasuna lortzeko jarraitutako premiamenduzko administrazioko prozeduretan zordunen baimenaren inskripzioa

baimendu ahal izango da, betiere Zerga bilketari buruzko Erregelamenduan jasotako baldintzetan.

**5.** Ondasun higigarriak epeka saltzeko kontratuak eta mailegu kontratuak, uztailaren 13ko 28/1998 Legeak, ondasun higigarrien epekako salmentarenak, aipatzen dituenak, lege horretako 15. artikuluan azaltzen den erregistroan sar daitezke zerga egoerari buruzko administrazio oharrik egin gabe.

**81. artikulua.- (16) (37) Subjektu pasiboaren aldaketa.**

Aldez aurretik dagokion Zerga ordaindu duela edo horretatik salbuetsita dagoela egiaztatzen ez bada, ezin izango da inolako tributuren edo ordainarazpenen subjektu pasiborik aldatu, betiere aldaketa horrek foru arau honetan zergapetutako ondasunak, eskubideak edo egintzak eskualdatzea dakarrenean.

## V. KAPITULUA
## ZERGAREN ORDAINKETA

**82. artikulua.- (37) Arau orokorrak.**

**1.** Subjektu pasiboek, foru arau honen 76. artikuluan xedatutakoaren arabera Zergarengatik egin behar duten autolikidazioa aurkeztean, zerga zorra zehaztu beharko dute, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez adierazitako lekuan eta moduan sartu beharko dute.

**2.** Foru arau honetan xedatutakoa aplikatuz Zerga Administrazioak egiten dituen likidazioen ordainketa erregelamenduz zehazten den epean egin beharko da.

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

## VI. KAPITULUA
## ITZULKETAK

**83. artikulua.- Itzulketak.**

**1.** (5) Baldin eta, epailearen edo Administrazioaren ebazpen irmoaren bidez, egintza nahiz kontratua deuseztatu, desegin edo suntsiarazi dela adierazten edo onartzen bada, zergadunak Zergaren kuotaren zioz ordaindu duen kopuruaren itzulketarako eskubidea izango du, egintzak edo kontratuak irabazizko ondoriorik ekarri ez badio. Gainera, itzulketa hori eskatu beharko du Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 65.

artikuluan ezarritako preskripzio-epearen barruan, ebazpena irmo bihurtzen denetik hasita zenbatuta.

**2.** Kode Zibilaren 1.295 artikuluak dioena betez, interesatuek elkarri itzuli beharrekoak elkarri itzultzen dizkiotela justifikatzen ez denean, mozkina ateratzeko asmorik badagoela uste izango da.

**3.** Egintzak edo kontratuak irabaziak ekarri baditu, egindako likidazioa zuzendu egingo da eta eskualdatutako ondasunen edo eskubideen aldi baterako gozamenaren balioa hartuko du oinarritzat.

**4.** Egintzak edo kontratuak irabazirik ekartzen ez badu ere, deuseztapena edo suntsipena Zerga ordaintzera fiskalki behartuta dagoen kontratatzaileak bete beharrekoak bete ez dituelako adierazi bada, ez da ezertxo ere itzuliko.

**5.** Kontratuaren bi parteek hala hitzarturik, kontratua bertan behera geratzen bada, ez da ordaindutako zergaren zenbatekoa itzuliko eta ordaindu beharreko egintza berritzat joko da. Bi parteen adiskidetzea eta demanda kentze hutsa hitzarmen honen adierazletzat joko dira.

**6.** Atzera erosteko paktuzko salerosketan atzera-egitea dagoenean, ez da egongo zerga itzultzeko eskubiderik.

**7.** Foru Aldundiak zehaztuko du tinbredun dokumentuak edo tinbre mugikorrak zein kasutan trukatu ahal izango diren edo horien zenbatekoa zein kasutan itzuli ahal izango den.

## VII. KAPITULUA
## ZIGOR ERREGIMENA

**84. artikulua.- (5) Zergen arloko arau-hauste eta zehapenak.**

Foru arau honek arautzen duen Zergari dagozkion arau-hausteek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren araberako zehapena izango dute.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.** Ondare Eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik lortutako zerga mozkinak, betiere foru arau hau indarrean sartu zenean indarrean zeudenak eta foru arau honetan jasota ez daudenak, indarrean sartu aurretik zuten baldintza horietan jarraituko dute indarrean.

**Bigarrena.** Arabako Foru Aldundiak zerga ondasunak eta eskubideak eskuratzeko eskubidea izango du, otsailaren 13ko 5/1995 foru arauan ezarritako baldintzetan.

**Hirugarrena.** Kooperatiben zerga erregimenari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauko 26. artikuluko 1. idatz zatia honela gelditu da idatzia:

"1. Ondare Eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan salbuespena jarraian azaltzen diren egintza, kontratu eta eragiketetan, aplika daitekeen edozein kontzepturengatik, Ondare Eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 56.1 artikuluan zehaztutako kargarengatik izan ezik. Horrenbestez, hauek dira egintza, kontratu eta eragiketa horiek:

a) Kapital zabalkuntzaren, sortzearen, bat-egitearen eta bereiztearen egintzak.

b) Maileguak sortzea eta baliogabetzea, obligazioen bidez ordezkatutakoak barne.

c) Hezkuntza eta sustapen funtsean sartzen diren ondasunak eta eskubideak eskuratzea, bere helburuak betetzeko."

**Laugarrena.** (11) Hipoteka bermea duten maileguak berrituz gero, berritzearen xedea maileguaren epealdia luzatzea dela, eskritura publikoek ez dute jasango foru arau honetako 56.2. artikuluan ezarritako karga.

Foru arau honetako 56. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoa gorabehera, aurrean aipatutako karga horretatik salbuetsita egongo dira, halaber, 2008ko apirilaren 22tik aurrera bi urteko aldian ohiko etxebizitza eskuratzeko, eraikitzeko edo birgaitzeko hipoteka bermearekin ematen diren maileguen epealdia luzatzeko egiten diren eskritura publikoak. Eskritura hauek paper arruntean egingo dira.

## (3) XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa.** (3) (11) Sozietate gardenen ohiko bizitokia eta aldi baterako araudia zehaztea.

Foru arau honetako 6. artikuluko Bi idatz zatiko A) letrako 2. arauan ezarritakoari eragin gabe, zergadunak bere interesgune nagusia Araban duen ezartzearen ondoriotarako ere ez dira kontuan hartuko martxoaren 17ko 8/2003 Foru Arauko lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoari jarraikiz egotzitako oinarriak; horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako, Sozietateen gaineko Zergako, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako, Ondarearen gaineko Zergako, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergako, Interes Orokorreko Jardueretan Partaidetza Pribatua Sustatzeko Zerga-pizgarrietako eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hainbat agindu aldatzen dira, zerga-gardentasun profesionaleko erregimenari atxikitako sozietateei dagozkienean izan ezik.

**Bigarrena.** (11)

Elkarte Profesionalei buruzko martxoaren 15eko 2/2207 Legea indarrean sartu zenetik eta 2008ko abenduaren 31ra arteko epean (egun hori barne), lehenago sortu diren elkarteek Lege horren xedapenetara egokitzeko behar dituzten egintzak eta dokumentuak, Ondare Eskualdaketei buruzko Zergatik salbuetsita egongo dira, elkarteen eragiketak eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateei dagokienez

**AZKEN XEDAPENA**

Foru arau hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hogei egunera sartuko da indarrean.

**OHARRAK**

(1) 22/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa.

(ALHAO, 150. zk., 03-12-26koa, gehigarria).

(2) 1/2004 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 17koa.

(ALHAO, 32. zk., 04-3-15ekoa).

(3) 7/2004 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa.

(ALHAO, 56. zk., 04-5-19koa, gehigarria).

(4) 16/2004 Foru Araua, uztailaren 12koa.

(ALHAO, 83. zk., 04-7-21ekoa, gehigarria).

(5) 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa.

(ALHAO, 30. zk., 05-3-11koa, gehigarria).

(6) 33/2005 Foru Araua, uztailaren 11koa.

(ALHAO, 84. zk., 05-7-27koa, gehigarria).

(7) 9/2006 Foru Araua, azaroaren 13koa.

(ALHAO, 138. zk., 06-12-1ekoa, gehigarria).

(8) 6/2007 Foru Araua, martxoaren 12koa.

(ALHAO, 36. zk., 07-3-26koa, gehigarria).

(9) 13/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa.

(ALHAO, 47. zk., 07-4-20koa, gehigarria).

(10) 22/2007 Foru Araua, abenduaren 18koa.

(ALHAO, 154. zk., 07-12-31koa, gehigarria; ALHAO, 2. zk., 08-1-4koa, gehigarria; ALHAO, 7. zk., 08-1-16koa, gehigarria).

(11) 14/2008 Foru Araua, uztailaren 3koa.

(ALHAO, 79. zk., 08-7-11koa, gehigarria).

(12) 21/2008 Foru Araua, abenduaren 18koa.

(ALHAO, 149. zk., 08-12-29koa, gehigarria; ALHAO, 7. zk., 09-1-16koa, gehigarria).

(13) Ikusi abenduaren 18ko 21/2008 Foru arauko hirugarren xedapen iragankorra.

(ALHAO, 149. zk., 08-12-29koa, gehigarria; ALHAO, 7. zk., 09-1-16koa, gehigarria)

(14) 1/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 20koa.

(ALHAO, 13. zk., 09-1-30ekoa).

(15) Ikusi urtarrilaren 20ko 1/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko lehenengo xedapen iragankorra.

(ALHAO, 13. zk., 09-1-30ekoa)

(16) 14/2009 Foru Araua, abenduaren 17koa.

(ALHAO, 149. zk., 09-12-30ekoa, gehigarria).

(17) 1/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 26koa.

(ALHAO, 13. zk., 10-2-3koa).

(18) 4/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 21ekoa.

(ALHAO, 114. zk., 10-10-6koa).

(19) 15/2010 Foru Araua, abenduaren 20koa.

(ALHAO, 147. zk., 10-12-29koa, gehigarria).

(20) Ikusi abenduaren 20ko 15/2010 Foru arauko lehenengo xedapen iragankorra.

(ALHAO, 147. zk., 10-12-29koa, gehigarria).

(21) 5/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 30ekoa.

(ALHAO, 3. zk., 11-1-7koa).

(22) 18/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa.

(ALHAO, 153. zk., 11-12-30ekoa, gehigarria).

(23) 12/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 4koa.

(ALHAO, 145. zk., 12-12-17koa).

(24) 13/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 4koa.

(ALHAO, 145. zk., 12-12-17koa).

(25) Ikusi abenduaren 4ko 13/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko 3. artikulua.

(ALHAO, 145. zk., 12-12-17koa).

(26) 7/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa.

(ALHAO, 34. zk., 13-3-20koa, gehigarria).

(27) 9/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa.

(ALHAO, 34. zk., 13-3-20koa, gehigarria).

(28) 13/2013 Foru Araua, apirilaren 15ekoa.

(ALHAO, 48. zk., 13-4-26koa, gehigarria).

(29) Ikusi apirilaren 15eko 13/2013 Foru Arauko bigarren xedapen iragankorra.

(ALHAO, 48. zk., 13-4-26koa, gehigarria).

(30) 32/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa.

(ALHAO, 144. zk., 13-12-16koa, gehigarria).

(31) 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 10ekoa.

(ALHAO, 36. zk., 15-3-25ekoa).

(32) 15/2015 Foru Araua, urriaren 28koa.

(ALHAO, 130. zk., 15-11-6koa).

(33) 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa.

(ALHAO, 152. zk., 15-12-30ekoa).

(34) 7/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa.

(ALHAO, 63. zk., 16-06-3koa).

(35) 19/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa.

(ALHAO, 147. zk., 16-12-30ekoa).

(36) 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa.

(ALHAO, 112. zk., 2017-09-29koa).

(37) 2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa.

(ALHAO, 32. zk., 18-3-16koa).

(38) 4/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 21ekoa

(ALHAO, 45. zk., 20-04-22koa).

(39) 8/2020 Premia Fiskaleko Araugintzako Dekretua, ekainaren 23koa

(ALHAO, 73. zk., 20-07-01ekoa)

(40) 10/2020 Premia Fiskaleko Araugintzako Dekretua, irailaren 8koa

(ALHAO, 105. zk., 20-09-16koa).

(41) 12/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 6koa

(ALHAO, 116. zk., 20-10-14koa).

(42) 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 2koa.

(ALHAO, 128. zk., 21-11-10ekoa).

(43) 31/2021 Foru Araua, abenduaren 15ekoa.

(ALHAO, 145. zk., 21-12-27koa)

(44) 35/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa.

(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa)

(45) 9/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa.

(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa).

(46) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.

(ALHAO, 150. zk., 22-12-30ekoa)

(47) 1/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa.

(ALHAO, 19. zk., 23-02-15ekoa).

(48) 26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa, 2024.

(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa).